

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko urriaren 18a / 602. zenbakia

Etxebizitza Politika Egitamua

Arrasaten etxebizitzaren
arazoa arintzeko tresna



KIROLA: ZALDIBARKO TXAPELKETA JOKOAN/14 • KULTURA: ANTZERKIA AMAIA ANTZOKIAN/15

AZALA: ALEX AZKARATE

ORAINGO ASTEAN: GREMIOEN GIDA/24

Orain Opel en,
BEZa ez da seriekoa.

**- %16^{KO}
BEZ**

Corsa Diesel /Astra Diesel

Orain OPEL kontzezionariotan nahi duzun Corsa Diesel edo Astra Diesela erosterakoan, BEZaren parekoa den deskontua duzu.


Oraintxe etorri zure OPEL kontzesionarióra.

Opel. Ideia berriak. Auto hobekak.

Eskaintza hau 2002ko urriaren 31 arte luzatuko da stockean dauden Corsa diesel eta Astra diesel automobiletan, Caravan, Coupé eta Cabrio modelook izan ezik. Promozio honen deskontua, automobilaren prezioa gehi fabrikari erantsitako aukera libreari prezioekin kalkulatu da (bi kasuetan zerga eta garralorik gabe). Informazio gehiago, zure OPEL kontzezionariotan.

Giauto

San Andrés Auzoa, 10D. Tel. 943 77 30 10.
ARRASATE-MONDRAGON



KALEINKESTA/ Monterroneko liburutegixe dagueen lekue zertarako ibilliko zeunke?



SUSANA MATA
Langillie



RESU LEZETA
Jubilaua




KONTXI JUANTORENA
Langillie



EUSEBIO GÓMEZ
Langillie



JUAN LUIS MURGIA
Langillie



AITOR ITURRIAGA
Langillie

Gauza asko egin leike, baiñe momentu honetan ez jat bat bera be okurriduten. Oso leku onien dago, baiñe, akaso, txikiñegixe da. Bestela, liburutegixe dagueen moduen gustetan jat.

Eskulanak egitteko lokal bat jarriko neuke hantxe. Oin, zeramika egitteko leku batera juen biher da, artilliez lan egitteko beste batera... Hori danori Monterroneko zentralizauta, hobeto.

Ikastaruek egitteko ibilliko neuke Monterroneko. Liburutegixe handik kentzen dauenien, eskulanak edo sukaldaritzako ikastaruek egitteko leku aproposa izengo da.

Zenbat gauza jarri leiken han! Momentu honetan ez dakit ze egingo neukeen lokal harekin, baiñe argi dago erabaki hori prixabarik eta ondo pentsaute hartu biher dala.

Argi dago oingo liburutegixe txiki geratu dala. Leku txiki dago, eta estanterietan ez da sartzen liburu gehixago. Oso leku aproposa da, eta hori herrixendako izen biherko litzake.

Neuk, behintzet, Mondraguen dagueen gobernuz kanpoko erakundiei emungo neuskio. Oso leku aproposa da, eta erakusketak eta berbaldixek egitteko lekue be egongo litzake.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK PARKEA ZIKIN Orain dela gutxi ARRASATE PRESSko kazetari bat Santa Barbara parkera igo zen, eta hara zer-nolako tankeran aurkitu zuen txabolaren alboko gunea. Arrasatearrok pozik egon beharko ginatke erdialdetik gertu-gertu Monterroneko eta Santa Barbarako parke ederrak ditugulako. Eta, jakina, parkeak hobeto zaintzea eta gutxiago zikintzea ez legoke batere gaizki.

ETABARRUAN...

- | | | |
|--|---|---|
| ORAIN ETA HEMEN /8 | ORAIN ETA HEMEN /9 | KIROLA /11 |
| Gasolia Cerrajeran | San Andresko parrokoa | Kenciren aurkezpena |
| Gasolia duen biltegi bat agertu da Cerrajerako lurzoruan. Udalak argibideak eskatu dizkio enpresari. | Jon Molina aretxabaletarrari, San Andresko parroko berriari, elkarrizketa egin diogu. | Arrasateko saskibalo taldearen aurkezpena aurkituko duzue kiroleko lehenengo orrialdean |

ASTEKODATUA

28

TALDE IZANGO DIRA ZALDIBARKO TXAPELKETAN


Hogeita zortzi talde izango dira aurten Zaldibarko Aretu Futbol Txapelketan, iaz baino hiru talde gutxiago. Talde batzuk elkartu egin dira, eta talde berriak ere badaude. 516 jokalaria, guztira.

BESTEKE SANA

“EITB irrati-telebista katea izatetik, euskal herritarrontzako telekomunikazioa zerbitzu publiko, orokor eta dinamizatzailea izatera heldu beharko litzateke (...). Euskal irrati-telebistagintza publikoak aitzindari rola bete beharko du. Komunikazio egitura nazionalaren oinarriak nork jarriko ditu bestela, teknologia berriek posible egiten duten transmisio eta konexio aukerak ikuspegi publikotik kudeatuko, kanal lokal eta orokor-rragoen arteko harreman eta sinergiak bideratuko, ikus-entzune-ko azpiegitura enpresariala bultzatuko, euskararen presentzia bermatuko ala edukietan helburu komertzial hutsak dituztenengandik libratuko?”

EDORTA ARANA
‘Euskonews’/02-09-27

HERRITARREN BERBAK/ Iker Ezpeleta



Porlanean Euskal Herrirantz

Egungo egoera politiko aldrebesak denoi eragiten digula edo beharko lukeela argi dago. Eta ezin pasa PNV, EA eta IUren hipokrisia salatuta barik. Hitz politen ostean euren txakurren ekintzak bakarrik pairatzen baititugu. Egoitzena, Bilboko manifa... Garzonen agindua. Gazte Asanblada osoa identifikatu eta iraintzea edo mutiko bat Audientzia Nazionalera eramatea Segiko jertse bat eramatearren ere Garzonen agindua?

Baina, betiko kontua, neurri antierpresibotartu sartu (ez da harriztekoa!) eta bien bitartean kapitalismo basatiak Amalurra zuzenean erasotzen jarraitzen du. Eta kapitalismo basatiak hitzegitean ez nabil Aznar edo Zapatero bezalako “pertsonez” ari, gure etxeko PNVkoek eta EAko “antiglobalizatzaile”-ez ari naiz. Horiek bai eraikitzen dute euren Euzkadi; porlanean Euskal Herria. Gu, bitartean, nora begira, zein eremu

fisikotan eraiki gura dugu Euskal Herria? Solar abandonatu batean, akaso? “Astopista” hemen dugu jada, horretaz ohartuko zineten; ba al duzue Abiadura Handiko Trenaren aurrerapausoen berri? Madrilak aurten obra-proiektua egiteko hamar mila milioi pezeta inguru ipini dituenaren berri? Honetarako azkar asko ados jartzen dira politikeria handietarako (makroekonomia, azpiegitura erraldoiak...). Gero bai, botere eremutxoan kudeaketan ikamikaren bat edo

beste sortuko da, baina funtsean... Bai Euskal Herria eraikitzen hasi behar dugu oraintxe bertan, baina Euskal Herria aurrera ateratzeko espazio fisiko bat beharko dugu. Beraz, lehenengo pauso atzeraezina lurraren txikizioa gelditzea beharko litzateke, euskara eta beste kontu pare batez batera. Euskal selekzioa eta EHNA edo ENA bezalako pitokerietan denbora galdu beharrean...

Arrasate
Otolara Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martinez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

Eusko Jaurlaritzako Kultura saila

Gipuzkoako Foru Aldundia

Arrasateko Udala

Aramaioko Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 18**
Azkoaga, Iturriozt 943 79 79 99
- ZAPATUA, 19**
Corcuera, M.Aranbarri 1 943 79 22 26
- DOMEKA, 20**
Irizar, Erguin 11 943 79 12 39
- ASTELEHENA, 21**
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74
- MARTITZENA, 22**
Zabala, Zarugalde 42 943 77 16 30
- EGUAZTENA, 23**
Ruiz, Maala 31 943 77 14 09
- EGUENA, 24**
Español, Araba etorb. 17 943 79 18 65

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERITXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Igalatorioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11

- LARRIALDIK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelohenetik egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan egun osoa

- Arrasate**
Astelohenetik egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko: medikuntza orok eta pediatria 943 03 52 50
 - Espzialitateak 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

- ERTZAINNTZA**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTZAILERAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943-12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron 943 77-01 05

MEZAK

San Joan parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	San Andres eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) 13:00 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz)	Santa Teresa eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:00 San Isidron (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz)
Uribarri parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)	Santa Marinako eliza Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz) Domeka 12:00 (gaztelaniaz)

OHARRAK

'BERTSOLAMINTZA' BERBALDIA
Urriaren 23an, eguaztenean, Jon Abrilek eta Maialen Lujanbiok bertsolaritza ganean berba egingo dute, Monterronen, 19:30ean.

EGUENETAKO ZINEKLUBA
Urriaren 24an, eguenean, *Lucky Break* filma, Amaia Udal Antzokian, 21:30ean.

EZKER BATUAK BERBALDIA
Urriaren 22an, martitzenean, Oskar Matute EBko parlamentariak eta Martin Calvo legebiltzar teknikariak egoera politikoaren ganean berba egingo dute, Monterronen, 18:30ean.

NOIZKO?-REN KARTELADA
Egubakoitzetan, Noizko? taldeak kartelada egiten du, Seber Altubean, 19:30ean.

TXATXIKONTALARIAK
Urriaren 22an, martitzenean, Txatxikontalariek lau eta zortzi urte arteko umeei ipuinak kontatuko dizkiete. Santa Marinako auzo liburutegian, 17:00etan, eta Monterronen, 18:30ean.

LITERATURA SOLASALDIK
Urriaren 24an, eguenean, hasiko dira Monterronen gaztelaniazko literatura solasaldiak. Dinamizatzailea gaixo egon da, eta horregatik ezin izan dituzte solasaldiak hasi.

AEDren AGENDA

'HIRU HAUNDIXEK'
AEDk azaroaren 1ean, 2an eta 3an, *Hiru haundixek hiru egunetan* mendi irteera antolatu du. Interesatuok jo AEDra, urriaren 23a baino lehen, izena ematera.

ZAHARBERRIKO IZENEMATEA
Zaharberri euskaldun zaharrek eta euskaldun berriek parte hartzeko izenematea zabalik dago.

URBANOEN ORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN


Garrantzizko lanak egiten ari ziren herrian

Amaia antzokia eraberritzeko lanak gelditu zituzten, Azoka plaza zeharo eraberritu zuten eta San Kristobalgo hilerriaren lehen faseko lanak hasi zituzten. Horrez gainera, Santa Barbara parkeko lanak bukatuta zeuden. Parkea berriro inauguratzeko eguna jarztea besterik ez zen falta.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru


"Eskatza"



Sukaldea.
-Oin ba, sukaldia esaten dou, sukaldia danian, baiña gu umiak giñanian, eskatza, eskatza. Sukaldeik ez.

GORKA ORTEGA


ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Esteban Laskurain sendabelarrei buruz

Astlehenean, 10:00etan, sendabelarren ganean egingo du berba Esteban Laskurainek: sendabelarrak zelan batu, non batu eta zertarako balio duten kontatuko digu Laskurainek hama-bostean behin, eta astlehenean izango da lehenengo saioa.

Kontu kontari tartean, San Bixente Ferrer nor izan zen kontatuko digu Eusebio Iñarrak. San Bixente Ferrer kalea ere bada herrian, baina askok ez duzue jakingo nor izan zen. Eguaztenean argituko dizuegu.



Joseba Apaolaza aktorearekin

Astean Joseba Apaolaza aktorea elkarrizketatu dugu, eta zapatuan eta domekan errepikatuko dugu elkarrizketa hori.

Eta Iraken ganean Amaia Arrizabalaga arrasatearrarekin egindakoa ere berriro entzuteko aukera izango da. Iraken bizi den egoeraz mintzatu zaigu arrasatearra. Eta sukaldean aritzea gustuko duzenok, ezin dezakezue galdu Igor Ezpeleta sukaldariaren tarte. Elkarrizketa horiek, 11:00etatik aurrera.

HAUGIROA!

MINIMOA Domeka, 13	8 °C
MAXIMOA Domeka, 13	24 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	96,4 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 9	13 °C	12 °C	47,9 l/m²
Eguena, 10	12 °C	11 °C	36,1 l/m²
Egubakoitza, 11	20 °C	11 °C	10,6 l/m²
Zapatua, 12	20 °C	12 °C	0,3 l/m²
Domeka, 13	24 °C	8 °C	1,2 l/m²
Astelehena, 14	20 °C	13 °C	- l/m²
Martitzena, 15	20 °C	14 °C	0,3 l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
09:00 Albistegia: Maria Agirre eta Nerea Zubietek gidatuta.
09:20 Eguneko agenda.
09:30 Igo autobusera: Aitziber Aranburuzabalak gidatutako magazina.
10:00 Euskadi Irratiko albistegia.
10:06 Igo Autobusera.
11:00 Euskadi Irratiko albistegia.
11:20 Arrasate Irratiko albistegia.
11:30 Eguerdiko hamabiak arte: efermerideak, zozketak, zorion agurrak... Maria Agirrek gidatutako tarte.
12:00 Euskadi Irratiko albistegia
12:06 Musika berriaren tarte: orain dela gutxi kaleratutako abestiak entzuteko aukera.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.
19:00-21:00-23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra

ZAPATUA
11:00 Asteko elkarrizketak: Joseba Apaolaza, Amaia Arrizabalaga eta Igor Ezpeleta, besteak beste.

DOMEKA
11:00 Asteko elkarrizketak

ASTEABIHITZETAN

Kontzezinoko pasabidea ixteko eskaintza

Kontzezinoko etxeetako bizilagunek pasabide estalia ixteko eskaera egin diote Arrasateko Udalari, besteak beste, pasabide hori ez delako batera txukun egoten. Bizilagunek pasabidea hesi batzuekin ixteko eskatu dute. Saioa gimnasiora joaten direnendako, berriz, pasabidea egunez zabalik egongo litzateke.

Udalak, eskaera aztertu eta gero, ondoko proposamena egin die bizilagunei: pasabidea pribatizatzea, eta, horrenbestez, garbiketa lanez ere bizilagunak arduratzea. Baina pasabidea ez dute hesi soil batzuekin itxiko, beharrezkoak diren lanak egingo dituzte pasabide hori ixteko.

Arratoien aurkako tratamendu berezia

Kolektoreko lanak direla-eta, Udaleko Zerbitzu Teknikoek arratoiekin kontu handiagoa izateko txosten bat aurkeztu dute. Txostenaren arabera, lanak direla-eta, baliteke janari bila dabilzan arratoien mugimendu bat izatea, eta mugimendu horiei aurre egiteko tratamendu berezia egitea proposatu dute Udalaren Zerbitzu Teknikoek.

Lan horiek Merforsan enpresak egingo ditu, eta 1.819 euroko aurrekontua izango da lan horietarako. Tratamendu berezi hori hilean behin egiten den ohiko tratamenduaren osagarri izango da.

Matxinatuen Korrikaldia

Domekan iritsi zen ibarrera Matxinatuen Korrikaldia. Antzuolan hasi eta Aretxabaletaraino, gure eskualdea zeharkatu zuen Korrikaldiak, Euskal Herriak hainbat eremutan bizi duen zapalkuntza salatze.

Matxinatuen Korrikaldiarekin Euskal Herriaren egituraketan oinarritzkoak diren zutabe zein arlo propioak sortu eta bultzatu gura dituzte.



Gabonetako argien lanen adjudikazioa

Aurtengo Gabonetako argiak Ingenieria, Construcción y Técnicas de Iluminación, SL enpresak jarriko ditu. Aurtengo Gabonetan, baina, hainbat argi mota jarriko dituzte: bombillak jarri beharrean hari argidunetz argituko dituzte Arrasateko kaleak, mantenu txikiagoa dute-eta.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran


Zein errespetu txikia!

Azkenean, Garzoni ez diote Bakearen Nobel saririk eman, eta agian horregatik beste auto bat ireki du. Haren esanetan, ETAk eta Batasunak garbiketa etnikoa eta gizateriaren aurkako krimenak egin dituzte, eta horren gaineko ekimenak iragarri ditu. Itxuraz, Baltasarrek ez du gura atsedetik hartu, ez horixe.

Utz dezagun Garzon alde batera, hark Euskal Herria bakean uzten ez badu ere. Joan den astelehenean, Donostiako Miramar jauregian, Makina-erremintako eta Fabrikazio Teknologien 14. aldia inauguratu zuten. Irekieran Ekonomiako Foru diputatuak berba egin zuen, eta biltzarkideei ongietorria euskaraz egin zien. Berba egiten hasi eta gutxira,

norbait altxatu eta oihu egin zion: "¡Hable en castellano!". Zein errespetu txikia duten batzuek eta zein mesprezu handia euskararekiko. Zoritxarrez, gaur egun halako jarrerak ez dira salbuespen hutsak, eta, batzuen iritziz, gainera, egokiak dira. Galde izeaiozue, bestela, Sanzi eta haren gobernuari. Aspaldian, euskararekin egiten ari direnak ez dauka izenik; antzinako hizkuntza desagerrarazi gura dute.

ASTEKOIRUDIA



XABIER URZELAI

KOOPERATIBISTEN ETA EUSKARAREN ARTEKO HARREMANA BERBAGAI AMAIA UDAL ANTZOKIAN

Kooperatibista euskaldunak Amaia Udal Antzokian batu ziren atzo, kooperatibista euskaldunen topaketan barruan. Mondragón Unibertsitateko Lanki ikertegiak eta Emun kooperatibak antolatuta, euskaldunen bilgunea izatea da helburua. Horrekin batera, *Kooperatibak eta euskara. Historia eta aro*


berri baten oinarriak izeneko liburua ere aurkeztu zuten. Han izan ziren, besteak beste, Lankiko eta Emuneko ordezkariak, MCCko eta Fagor taldeko ordezkariak eta Arrasateko Udaleko ordezkariak. Horiez gain, liburuaren idazle Nahia Intxausti eta Amagoia Unanue ere han izan ziren.



Pando Errotuloak


Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Ibilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Señalizazioak
- Lonak
- Erliebedun hizkiak



UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE



AGR ERREFORMAX S.L.

Metal aroztegia eta PVC


Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahai eta aulkiak

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki, 3 behea (Musakola)
Tel eta faxa: 943 77 11 20



GIZARTEA/ Udalaren Etxebizitza Politika Egitamua

Arrasaten etxebizitzaren arazoari aurre egiten laguntzeko bidea landu du Udalak



UBANE MADERA

Cerrajeran eraikiko dituzte babes ofizialeko etxebizitza gehien: 308. Errentan 100 emango dituzte eta azalera eskubidean 208.

UBANE MADERA

Joan den astean, etxebizitza politika onartu zuen Arrasateko Udalak osoko bilkuran: Etxebizitza Politika Egitamua, hain zuzen. Egitamu horrek datozen urteotan etxebizitzaren gainean dauden aurreikuspenak eta Udalak hartuko dituen konpromisoak batzen ditu.

Egitamu horren helburu nagusia da Arrasaten etxebizitzaren arazoari aurre egiteko dion tresna bilakatzea. Denontzat plataformak gai horrekin lotuta aurkeztu zuen mozioa abiapuntu moduan hartuta eta Aztiker soziologia ikerguneak egindako azterlanaren emaitzak kontuan hartuta jorratu du Arrasateko Udalak Etxebizitza Politika Egitamua.

Edozelan ere, kontuan hartu behar da Udala gai horrekin mugatuta dagoela; izan ere, ez dauka bestelako administrazioek bezain beste eskumenik. Horren ondorioz, Udalaren eskuarmena mugatuta egongo da.

Etxebizitza Politika Egitamua hamar urtez izango da indarrean; 2003-2013 urte bitartetarako aurreikuspenak eta neurriak batzen ditu. Deba dela, bost urte pasatu eta gero Udalak txostena berriro ikusiko du, egokitzapenik behar duen edo ez zehazteko.

GUTXIAGO ERAIKI ETA ASKO GARESTITU

Besteak beste, Arrasateko egoera zein den jaso du Udalaren txostena: 8.546 etxebizitza familiar dau-

de Arrasaten. 1981etik hona %15 igo da kopurua. Datuen arabera, Arrasaten asko eraiki bada ere, oro har, Gipuzkoan eta Euskal Autonomia Erkidegoan baino gutxiago eraiki da.

Prezioei dagokienez, berriz, azken bost urteotan bikoiztu egin dira: esaterako, 1972an edo lehenago etxebizitza erosi zutenek milioi bat pezeta inguru ordaindu zuten; 1980an, lau milioi pezeta; 1990ean, 11 milioi pezeta eta 2001ean, batez beste, 183.000 euro pasatxo.

Gaur egun, gainera, ez dago alde handirik etxebizitza berria bada edo erabilitakoa bada: berriatik 186.300 euro ordaintzen badiuzte, erabilitakoarengatik 178.800 euro ordaintzen dituzte; izan ere, metro koadroaren prezioari erreparatzen badiogu, etxe berrietan %73 igo da azken bost urteotan eta erabilitako etxebizitzetan, %104.

Oro har, prezio horiek guztiak bat datoz EAEko batez bestekoarekin; dena dela, Debagoienan EAEko gainerako eremuetan baino gehiago garestitu dira.

ZENBAT ETXE BEHAR DIRA?

Bi gauza kontuan hartu behar dira galdera horri erantzuten hasi baino lehen: batetik, herrian dagoen premia, eta, bestetik, eskaria. Premiaren barruan sartzen da herrian dagoen beharra eta eskariaren barruan sartzen dira etxebizitzamerkatuan etxea eskuratu ahal dutenen zenbatekoa. Eta premieren zati bat bakarrik bihurtzen da eskari.

Hori kontuan hartuta, Arrasaten 2.622 etxebizitza behar dira premiei erantzuteko eta 745 etxebizitza eskariari erantzuteko. Dena dela, datu horien barruan ere sartzen dira aurreneko etxebizitza barik etxebizitzaz aldatzea gura dutenak. Hortaz, hori lortuko balute, gaur egun erabiltzen dituzten etxebizitzak merkatura aterako lirarteke; hortaz, herrian behar diren etxebizitzaren kopurua biribilduz gero, 1.850 etxebizitza behar dira Arrasaten premia guztiari erantzuteko.

Behar horiek asetzeko hiru aukera aztertu ditu Arrasateko Udalak: alde batetik, dagoen merkaturaren baitan asetzea; bestetik, etxe hutsak erabileran ipintzea; eta, azkenik, etxebizitza berriak eraikitzea. Hau da, oro har, bi helburu ditu Etxebizitza Politika Egitamua: etxebizitza eskaintza areagotzea eta eraikitako ondarea errentagarri egitea. Etorkizunari begira, berriz, errenta bultzatzea ere gurako luke Arrasateko Udalak.

ESKAINITZA AREAGOTZEA

Etxebizitza berriak eraikitzea da Udalak aztertu duen aukeretakoa bat. Eta Udal Antolamenduaren Egitamu Orokorren bitartez zehatz daiteke zein motatako etxebizitzak eraiki ahal diren Udalerriko lurzoruan; hau da, babes ofizialekoak, libreak edo salneurri mugatuko etxebizitzak izango diren adieraziko dute. Hiru horien artean, 608 babes ofizialekoak izango direla zehaztu

dute, libreak 1.235 eta salneurri mugatukoak, aldiz, 216. Azken horiek beste bien erdibidekoak dira; hau da, Udalak baditu bereak diren lursailak, etxebizitzak egiteko. Udalak salneurri mugatuak ezarriko dizkie etxebizitza horiei; babes ofizialeko etxebizitzak baino garestiago eta libreak baino merkeago.

Kontuak kontu, denetara, 2.059 etxebizitza eraikiko dituz-

Denetara, 2.059 etxebizitza eraikiko dituela aurreikusi du Arrasateko Udalak

Eraikiko dituzten etxebizitzaren %49 sustapen publikokoak izango dira

Arrasaten etxebizitza familiarren %7 (598 etxebizitza) hutsik daude

tela zehaztu du Arrasateko Udalak. Horietatik 1.419 Etxebizitza Politika Egitamua lehengo lau urteetan egiteko asmoa dute. Beste 537 hurrengo lau urteetan eta beste 103 egiten ari dira edo egitekotan dira.

ETXEAK, NON

Aurreneko lau urteotan Cerrajeran egingo dituzte etxebizitza gehien: 476. Atxabalpen beste 224



UBANE MADERA

Etxeetako behe barruak etxebizitza moduan erabiltzeko aukera ere badago.



UBANE MADERA

Gaur egun ia ez dago alderik etxebizitza berrien eta erabilitako etxebizitzaren prezioen artean.

gingo dituzte, Uribarrin 180 eta Zabalgunea 1en (Gelma eta Etxe Txikiak dauden lekuan) 177. Denetara, 1.419 etxebizitza.

Bigarren lau urtealdian 212 etxebizitza eraikiko dituzte Zabalgunean, Bustintzan 104 eta Zaldibar kalean 65. Eta dagoneko egiten ari direnen artean, Legargaineko 85 etxebizitzak nabarmentzen dira.

SUSTAPEN PUBLIKOKOAK

Eraikiko dituzten etxebizitzaren artean, sustapen publikokoak eta sustapen pribatukoak daude. Sustapen publikokoak izango dira babes ofizialeko etxebizitzak, salneurri mugatukoak eta Atxabalpe izeneko esparruan eraikiko dituztenak, hango lurzorua Udalarena da-eta. Hona hemen zenbaterakoak: Cerrajeran 2an, 476; Atxabalpen, 224; Zabalgunea 2an, 212, Akisoaldean (Garagartzan), 96 eta Uribarrin,

40. Horrenbestez, eraikiko dituzten etxebizitza kopuru osoaren %49 sustapen publikokoak izango dira eta beste %51 sustapen pribatukoak.

ERAIKITAKOAK ERRENTAGARRI EGITEA

Etxebizitzaren inguruan duten beste helburu bat da eraikitako ondarea hobetu eta haren balorea azalera zuzena; izan ere, Arrasaten

industrializazioaren ondorioz izan zen biztanle hazkundeak bultzatuta, 60ko eta 70eko hamarkadetan etxebizitza asko eraiki zituzten; asko, kalitate txikiko materialekin. Horren ondorioz, poliki-poliki herritarrek utzi egin dituzte gune horiek. Hortaz, helburua da inguru horiek hobetzea, berriro ere erakargarri egiteko.

Besteak beste, etxebizitzaren eraikitzea bultzatzeko dirulaguntzak emango ditu Arrasateko Udalak; eta Eusko Jaurlaritzatik ere eskura daitezke laguntzak. Arrasatearen barruan alde zaharreko eta San Andres auzoko etxebizitzak sartzen dira kategorian horretan. Horrez gain, adibidez, Udala herriko bi auzo eraberritzeko lanak egiten ari da: Erguin eta Makatzena, hain zuzen ere.

LOKALAK ETXEBIZITZA

Horrekin batera, duela bi urte, merkataritza lokalak etxebizitza moduan erabili ahal izateko prozesua ere abian ipini zuen Udalak. Aurreikuspenen arabera, eta Etxebizitza Politika Egitamua indarrean dagoen bitartean, mota horretako 40 etxebizitza sortuko dituzte.

ETXEBIZITZA HUTSAK

Arrasaten etxebizitza familiarren %7 (598) hutsik daude, proportzioan, Debagoienean baino gutxiago. Etxebizitza hutsen kopururik handiena alde zaharrean

dago (kopuru osoaren %20). Dena dela, hutsik dauden etxebizitza horietatik erdia epe laburrerako bakarrik egoten dira hutsik, eta beste erdia era iraunkorrean.

Oro har, helburua da etxebizitza hutsok merkaturatzea. Horretarako, duela urte dezente Donostian abiarazitako esperientzia kontuan hartuta, zerbitzu bat sortuko du Udalak: Alokagai Udal Esku-hartzerako Egitasmoa; etxebizitza hutsen jabeen eta balizko maizterren arteko bitartekaritza lana egingo du zerbitzu horren bitartez. Jabeen euren etxebizitzak Udalaren esku utz ditzaten pizgarriak eskaintzen zaie; adibidez, balizko matxurei aurre egiteko aseguru, eta errenta ordaintzen ez zaien kasuetarako ez-ordainketa aseguru. Trukean jabeen eskatzen zaio etxebizitza bizitzeko moduan egotea, errenta merkaturatzea baino merkeago eskaintzea eta errenta hitzarmena bost urtekoa izatea. Eta maizterri bost urterako errenta hitzarmena eskaintzen zaio, baina gutxieneko diru sarrerak ziurtatzeko bitartekoak dira garrantzitsuenak.

IRTENBIDEA

Horiexek dira, hortaz, Etxebizitza Politika Egitamua batu dituen datuetariko eta asmoetariko batzuk. Ea, bada, gaur egun bizi den egoera larriari irtenbideren bat ematen laguntzen dion.

Datuak zenbakitan (borobilduta)

- 8.546 etxebizitza familiar daude Arrasaten. 1981etik hona, %15 igo da kopurua.
- 2.059 etxebizitza eraikiko dituzte datozen 10-15 urteotan. Horietatik 1.419 Etxebizitza Politika Egitamua-aren aurreneko lau urtealdian egingo dituzte.
- Kopuru osotik 1.000 etxebizitza pasatxo interbentzio publikokoak izango dira, eta beste horrenbeste libreak.
- %10-11 dentsitate txikikoak izango dira, eta beste guztiak dentsitate

- handikoak; hau da, blokeetan egiten diren horietakoak.
- Interbentzio publikoko etxebizitzetatik 600 bat babes ofizialekoak izango dira. Eta 400 prezio mugatukoak; eta 400 horietatik akaso babes ofizialeko etxebizitza gehiago aterako dira.
- Behe-barruak etxebizitza bihurtzeko 30-40 baimen inguru eman ditu Udalak; aukera hori irekita dago oraindik, 100 bat baimen eman arte.
- Etxeetako solairuetan dauden jarduera profesionalak behe-barrueta-ramatea ere beste aukera bat

- izango da. Jarduera horiek erabiltzen duten solairua etxebizitza moduan erabili ahal izango da.
- 600 etxebizitza hutsik daude. Erdiak bakarrik daude hutsik aspalditik.
- 1972an edo lehenago etxebizitza erosi zutenek milioi bat pezeta inguru ordaindu zuten; 1980an, lau milioi pezeta; 1990ean, 11 milioi pezeta eta 2001ean, batez beste, 183.000 euro pasatxo.
- Mondragón Unibertsitatea egoitza berri bat gauzatzeko ideia lantzen ari da.

EKIN-EN OSTEGUNEROKO INFORMAZIO TAILERRAK

ZEINTZUK DIRA NIRE ESKUBIDEAK?

Gaiak: Zuzenbideko hainbat gai:

- Ezkontza erregimena, egitatezko bikoteak eta bikoteen banaketa.
- Oinordetza: testamentuak eta herentzia.
- Pentsioak: erretiroa, alarguntasuna, umezurtzentzat laguntzak, e.a.
- Mailegu kontratua eta bermezko kontratua (abalak).

Noiz: urriaren 31tik azaroaren 21era bitartean, ostegunero, 18:00etatik 19:30era.

Emaileria: Ainhoa Larrañaga (EMUN Koop. E.).

Izenematea: elkartean bertan, urriaren 28a baino lehen.

ZERGATIK NAGO TRISTE?

Gaia: Emakumeon bizitzan heldutasunera iristean aldaketak gertatzen dira (fisikoak, emozionalak, sozialak,...). Horiek gure egunerokotasunean eragiten dute, eta, horregatik, askotan triste edo nahigabetuta sentitzen gara. Horiek ulertu eta bizipoza sentitzen laguntzeko tailer dinamiko eta atseginak antolatuko ditugu.

Noiz: azaroaren 28tik abenduaren 19ra bitartean, ostegunero, 18:30etik 19:30era.

Emaileria: Sara Vitoria (psikologoa).

Izenematea: elkartean bertan, azaroaren 22a baino lehen.

Ekin
Emakumeak • AED

INFORMAZIO GEHIAGO
ETA IZENEMATEA,
HELBIDE EDO TELEFONO
ZENBAKI HONETAN:

Interesatuak:

943 79 83 70

651 70 79 36

Pablo Uranga, 6

ARRASATE

Erregaiia duen biltegi bat agertu da Cerrajerako lurzoruan

UBANE MADERA

Cerrajera inguruan kutsatuta egon daitekeen lurzoruaren azterketa egiteko gomendioa egin du Udaleko Ingurumen Sailak. Kontua da uztailean salaketa jaso zutela Udalean; salaketa esaten zen Saiolango eraikinetik gertu erregaiia duen biltegi bat dagoela.

Berez Cerrajerako lurzorua dagoeneko garbituta egon behar bazen ere, norbaitek egindako salaketa batek hori ez zela horrela jakinarazi dio Arrasateko Udalarari. Salaketa horren arabera, erregaiia duen biltegi bat dago oraindik han lurperatuta, UCEMeko eraikin zentralaren atzealde inguruan, gaur egun, Saiolango egoitza dagoen lekutik oso gertu.

Oraingo asteko Gobernu batzordean landutako informazioaren arabera, joan den uztailetik hona dator arazoa. Cerrajera lantegiak berogailuarendako erabiltzen zuen gasoliodun biltegi bat zegoela jakin zuen Udaleko Ingurumen Sailak. Harrituta, lanon promotoreari, Landu Promozioak enpresari, horren berri galde-tuzion. Eta orain, informazio hori esku artean, beste txosten bat eskatu dio Udalak enpresa horri.



UBANE MADERA

Argazkiaren aurrealdean ikusten den zulo (biltegi) horretan dago erregaiia.

HIRU ESKAERA

Hiru eskaera egin dizkio: batetik, argitzeko ea zergatik ez zuten biltegi hori zegokionean atzeman, hau da, lurzoruaren kutsadura maila aztertu zutenean, eta han zeuden gainerako biltegiak kendu zituztenean, orain agertu den hori ez zuten kendu, ezta han zegoenik jakinarazi ere; bestetik, biltegiak izan dituen jarioak eta horiek eragin dituzten kalteak aztertzeko ere eskatu diote; eta,

hirugarrenik, hondakin solido zein likido horiek erretiratzeko eta kudeatzeko egitasmoaren berri emateko eskatu diote Zarauzko enpresari.

Horrez guztiaz gain, gertatutakoa aztertzeko ikerketa zabaltea ere erabaki du Arrasateko Udalak, bereziki, lanak egiten ari den enpresa gertatutakoaren erantzule den edo ez jakiteko; hau da, enpresa hori jakinaren gainean zegoen edo ez zehazteko.

Tranbiaren ibilbidea aldatu dute Etxezarretako parke inguruan

UM

Eusko Jaurlaritzak tranbiaren ibilbidea egokitu du Etxezarreta inguruan. Horrenbesteko kalterik ez eragiteko eta parkean hobeto integratuta egoteko proiektua aurkeztu dio Arrasateko Udalarari. Eta Udalak onartu egin du Jaurlaritzak proposatutakoa.

Joan den otsailean eskatu zuen Udalak tranbiaren ibilbidea aldatzea. Kontua da Eusko Jaurlaritzak esan zuela Arrasate-Elorri (San Prudentzio) arteko tranbiaren ibilbidea lehengo trenaren ibilbidea jarraituz egiteko asmoa zutela. Arrasateko Udalaren iritziz, berriz, egokiagoa da tranbiaren ibilbidea beste aldera eramatea; hau da, ibaiaren eskumako aldetik beharrean, ezkerretatik; errepidearen beste aldetik, hain justu ere. Udalak lortu gura duena da ez apurtzea Etxezarretako parkearen eta Ikastaundiko magalen artean gaur egun dagoen lotura, parke moduan.

Eskaera hori konputan hartuta, beste alternatiba bat egin zuen Jaurlaritzak: Etxezarretan, erre-kaz bestaldetik joatea tranbiaren ibilbidea. Baina alternatiba



UBANE MADERA

Etxezarretatik pasatuko da tranbia, baina baldintza bereziak izango ditu.

hori, oso garestia izateaz gainera, inguruan dauden azpiegitura guztiak egokitu beharko lirakeke eraikitzeke: esate baterako, Bergatik datorren errepidea, Epele eraiki asmo duten araztegia... Hortaz, lekualdatzea ez da bide-ragarria.

INTEGRAZIOA

Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak zera proposatu dio Udalarari: tranbia Etxezarreta parketik

pasatzea, baina baldintza bereziki; hau da, adibidez, tranbiak abiadura moteldu beharko du Etxezarretan, eta geralekuak ere izango ditu han. Horrez gainera, bide berde bat egitea ere proposatu du Jaurlaritzak, han inguruan oinezkoendako bereziki izango den pasabideren bat. Hori guztia tranbia Etxezarretan ahalik eta integratuen egoteko.

Udalak onartu egin du Jaurlaritzaren proposamena.

LABUR

Fagor Ederlanen emisioak legearen mugen azpitik daudela diote azterketek


Hiru bider neurtu dituzte Fagorrek Uribarriko Ederlan lantegiak botatzen dituen emisioak. Eta hiruren emaitzek erakusten dute, legeak ezarritako kutsadura mugen azpitik daude lantegiaren emisioak. Hala jakinarazi dio Ederlango ordezkariak Arrasateko Udaleko Gobernu batzordeari. Hortaz, neurketen datuak enpresaren kontrako salaketaren espedientearen barruan sartuko dituzte.

Bestalde, talde berarekin segituz, baina San Andresko lantegia berbegai izanda, inguru haren urbanizazioarekin lotutako gaia ere landu dute oraingo asteko Gobernu batzordean. Horren arabera, zenbaif lan egiteko datak ezarri dituzte, hala nola: bidegorria 2004ko irailaren 1ean hasi eta 2004ko abenduan bukatuko dute; industrialdearen atzetik joango den bidea 2005eko apirilaren 1ean hasi eta 2005eko ekainaren 30ean bukatuko dute; eta kamioiendako aparkalekua ere egiteko asmoa dute. Azken horren lanak 2006ko apirilaren 1ean hasiko dituzte, eta 2006ko ekainaren 30ean bukatu. Horrez guztiaz gain, saihebidarekin bat egiteko biribilunea egitea ere zehaztu dute, Bedoñara bidean.

Nafarroa Oinezera joateko deialdi berezia egin du alkateak

Herritarrei zuzendutako bando baten bitartez, Xabier Zubizarreta alkateak Nafarroa Oinezera joateko dei berezia egin du. Besteak beste, alkateak dio "lan handia eta neketsua izanik euskaldun eta euskaltzale guztien laguntza behar dutela egun berezi hori aurrera ateratzeko eta antolaketa lanerako". Hori dela eta, domekan ikastolen jaiarekin ere bat egingo du alkate moduan, eta herritarrei, norberak ahal duen moduan, laguntza emateko eskatu die. Horretarako telefono bat ere badakar bandoak: 948 40 24 72.

Horrez gain, AEDk ere lanera joateko dei egin du, eta horretarako, autobusa antolatu du. Bezperan irtengo da autobusa, zapa-tuan. Eta domekan joan gura dutenendako beste autobus bat antolatu du Arizmendik. Arrasateko, Aretxabaletako eta Eskoriatzako euskaltzaleak eramango ditu Tutera-Fontellasera.



Gelmaren gaia aztergai osoko bilkuran

Gaur, egubakoitza, ezohiko osoko bilkura izan da Arrasateko Udalean, 19:00etan. Hain zuzen ere, joan den astean erabakitze-ko geratu ziren gai bi landuko dituzte: bata, Gelmako batzordearen alegazioei erantzutea, eta, bestea, behin betiko onarpena ematea Hiri Ordenazioko Udal Plan Orokorriari. Gogoratu beharrra dago plan orokor horren arabera enpresa lekuz aldatu eta erre-kaz beste aldera eramatea proposatu zuela Udalak. Gai bi horiekin batera, 2003 urterako Ordenantza Fiskalen Aldaketa onartzeko proposamen ere landuko dute zinegotziek. /U.M.

ELKARRIZKETA

JON MOLINA/SAN ANDRESKO PARROKOA

“Oso harrera ona egin didate eta oso jende jatorra topatu dut”

UBANE MADERA

Jon Molina aretxabaletarra (32 urte) da San Andresko parroko berria. Bilbon Zuzenbide ikasketak egiteaz gain, Donostian seminarioan izan zen Teologia ikasten. 29 urterekin abadetu zen, eta orain arte Alegian eta inguruetan ibili da.

Estreinatu duzu parrokia?

Estreinatu berri. Irailaren 22an izan zen sarrera ofiziala eta harrezkero hemen nago, egunero mezak ematen; bi aste bukera pasatu dira, eta aurreneko hileta ere izan dut.

Lehendik ezaguna zenuen?

Ez. Ikusi zelan diren gauzak: Bilbora joateko autobusa hortik pasatzen zen, eta hori da parrokiaren gainean nuen erreferentzia bakarra. Hilaren 22an sartu nintzen lehenengo aldiz elizara.

Eta zer iruditu zaizu?

Elizak margotu beharra du, baina polita da, atsegina. Kanpotik zapata kaxa bat da, baina barrutik atseginagoa da, goxoago; tamaina txiki samarrekoa eta nahiko bildua. Baina hori baino inportanteagoa dira pertsonak, eta orain arteko esperientzia (oso motza) oso ona izan da. Oso harrera ona egin didate eta oso jende jatorra topatu dut.

Pozik zeure etxetik horren gertu egotearren?

Ez dakit. Onartu beharra dut proposatu zidatenean, hasieran erreparoa eman zidala, etxetik gertuegi dagoelako. Jende ezagun asko dut hemen. Eta gure lanerako hobe da askatasun apur bat. Beharbada, arazoa, objektiboa baino gehiago, subjektiboa da. Baina oraingoz ondo doa.



UBANE MADERA

Zein helburu ekarri duzu parrokia berrirako?

Oraindik ez dakigu. Ez dugu planik zehaztuta. Orain egin behar dugu: urtebete hartuko dugu gauzak ikusiaz eta ezagutuaz joateko, eta, horren arabera, haritxo batzuk ezarriko genituzke, lanean jarduteko.

Baina herriko parrokien arteko harremana estutzeko

asmoa duzue, ezta?

Bai; orain arte apur bat nor bere aldetik ibili da, eta orain gurako litzateke indarrak bateratzea eta lankidetzaren bultzatzea.

Zer esango zenieke herri-tarrei?

Elkar ezagutu arte denok izan behar dugu pazientzia. Dena dela, erreparoa nuen, baina oso harrera ona izan dut. Gustura nago.



UBANE MADERA

Arrasatera ere iritsi dira autobideko lanak.

Urte bi barru helduko da autobidea Arrasatera

ENEKO AZKARATE

Eibar-Gasteiz autobidea 2004. urte amaierarako iritsiko da Arrasatera, Epeleko bidegurutzerara, hain justu. Hortaz, epeak betetzen badira, urte bi barru, gutxi gorabehera, hartu ahal izango da autobidea herrian.

Ez Gasteizera joateko, horretarako 2007. urte hasierara arte itxoin beharko dugu-eta, baina bai Bergara edo Eibar aldera joateko. Eta autobidea erabiltzeko ordaindu egin beharko bada ere, ez da oso garestia izango: esaterako, Epelen sartu eta Bergarako sarreraraino joatea -3,6 kilometro, guztira- 0,28 euro kostako zaigu, hau da, 50 pezeta baino zertxobait gutxiago; Epeletik Gasteizerainoko bidaia, oster, 1,2 euro kostako zaigu (200 pezeta).

Hori guztia, bai epeen kontua eta bai bidesariarena, Gipuzkoako Foru Aldundiak aurreikusitakoa betetzen baldin bada. Datu horiek eta beste batzuk aditzera

eman zituzten Diputazioko ordezkariak joan den egubakoitzean, autobideko lanen nondik norakok ezagutzera emateko egindako bisitan.

EPELE INGURUAN LANEAN

Epeleko bidegurutzearen inguruko lanak aurtengo abuztuan hasi zituzten. Oraingoz, hainbat lur mugimendu eta Ikastaundiko tunelaren sarrerarako lanak egingen dihardute. Epeletik Elorregira arteko zatia egiteko lanak, bidegurutzea dagoen tokiaren artekoak, 40.660.961 eurotan adjudikatu dituzte. Bi kilometroko zatia da, eta kilometro bateko tunela, Ikastaundikoa, eta Oñatiko Zubibidea hartzen ditu bere gain. Zati horretako lanak 2004. urte bukaerarako amaitzea espero dute.

Autobidea, baina, lehenago zabalduko dute. Bergara iparraldetik, Ondartzako lotunetik, Maltzagarainoko zatia, behinik behin. Zazpi kilometroko autobide zati hori datorren urteko apirilean zabaldu nahi dute.



URONDO


Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

1.956tik



Laster zabalduko dugu

Attama
Lurríndegía

2002-2003 DENBORALDIKO KENCI ARRASATE SASKIBALOI TALDEA

Iker Zubiriaren mutilek igoera fasea jokatzeari izango dute aurten ere helburu

Ez dute ondo hasi denboraldia, baina egin duten jokoak argi erakusten du aurten ere igoera fasea jokatzeko taldea badagoela

XABIER URZELAI

Kenci Arrasate saskibaloi taldeak dagoeneko partidu bi jokatu ditu, eta puntu bat bera ere ez du eskuratu. Hala ere, denboraldi hasiera gaitza tokatu zaie etxekoei, baina badago astia gora egiteko.

Badirudi Kenci Arrasate taldeak uste baino gaizkiago hasi duela aurtengo denboraldia: bi partidu jokatu ditu, eta biak ere galdu. Leioatik esku hutsik etorri ziren Iker Zubiriaren mutilak (76-65),

eta joan den asteburuan, etxean jokaturako lehenengo partiduan Kenci Arrasatek ezin izan zuen irabazi (84-88).

Hala ere, irudipenak baino ez dira, etxeko taldeak bi partidu horietan maila polita erakutsi du-eta. Azkeneko partidua, joan den astean jokaturakoa, emozio handiko partidua izan zen, eta kontrarioa ere ez zen nolana: Pais Vasco Siglo XXI taldea; jokalarik gazteak ditu talde hark, baina Espainia mailako selekzio bat da, eta gutxiatik ez zuten etxekoei irabazi. Arrasatearrak gogor



Aurtengo denboraldiko Kenci Arrasate saskibaloi taldea.

XABIER URZELAI



Iker Zubiria
Emetzarzaillea
Oñati



Jon Basurko
Pibota
Arrasate



Iñigo Ziarsolo
Hegalekoa eta joko antolatzailea
Bergara



Iñigo Blain
Hegalekoa eta pibota
Oñati



Ander Mallabiarrena
Pibota
Arrasate



Iker Errasti
Hegalekoa
Arrasate



Gorka Kintana
Hegalekoa eta joko antolatzailea
Arrasate



Jokin Laspiur
Hegalekoa eta joko antolatzailea
Arrasate



Gorka Zurutuza
Joko antolatzailea
Oñati



Iñigo Gamarra
Hegalekoa
Aretxabaleta



Mikel Blain
Pibota
Oñati



Mikel Pagaldai
Pibota
Eskoriatza

irten ziren, partida irabazteko asmoarekin. 6-0 aurre hartu zuten, baina horren ondoren, kanpotarrek aldea txikitzea lortu zuten. Lehenengo laurdenaren amaieran parekotasuna zen nagusi, 16-14 etxekoen alde.

Bigarren laurdenean, berriz, kanpotarrek hartu zuten aurre, eta sei puntuko aldearekin heldu ziren atsedenera. Hirugarren laurdenaren hasieran kanpotarrek 13 puntuko aldea eskuratu zuten, baina arrasatearrak suspertu eta alde hori murriztea lortu zuten. Aldea murriztu bakarrik

Taldeak oraindik ez du partidurik irabazi, baina erakutsi duen maila ez da txarra izan

ez, aurretik jartzea ere lortu zuen Kenci Arrasatek, lau puntuko aldea hartu zuen. Emozio handiko minutuak izan ziren, baina

Joan den asteburuan, partidu ikusgarria ikusteko aukera izan zen Musakolan

azkenean, kanpotarrek gora egin eta, partidua berdindu eta gero, lau puntuko aldeagatik irabazi zuten: 84-88.

Azken minutuetan estutu

Jokatutako partidu bietan etxeko taldeari antzekoa gertatu zaio: Iker Zubiriaren mutilak gogotsu irteten dira kantxara, partiduari aurre egiteko asmoarekin, eta lehenengo minutuak erritmo bizikoak izaten dira.

Joan den asteko lehenengo bost minutuetan bazirudien kanpotarrek ikusle soilak baino ez zirela, etxekoei ia guztia ondo egiten zuten-eta: jokaldi azkarrak egin, jaurtiketak asmatu eta defentsan

baloiak lapurtu. Horrela gaitza da partidua galtzea, baina partidu osoa horrela jokatzeari are gaitzagoa da. Etxeko taldeari lehenengo partidu bietan azkeneko laurdenean joan zaizkio puntuak.

Arrasatearrak zonakako defentsa zelan gainditu asmatzen badute, seguru, puntuak bata bestearen atzetik etorriko direla. Oraingo asteburuan, Ursulinas talde nafarra izango da aurkaria. Partidua Iruñean izango da, zapatuan, 19:30ean.

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

ERRUGBIA

Arrasateko Errugbi Taldeak irabazi egin zuen denboraldiko lehenengo partidua

Patxi Gorosabelen mutilek Hernaniren kontra jokatuko dute zapatuan, arratsaldeko lau eta erdietan, Hernanin

XABIER URZELAI

Zapatu goizean jokatu zuten Arrasateko Errugbi Taldeko mutilek denboraldiko lehen norgehiagoka. Aurkaria, Irungo taldea, eta emaitza, 37-15, etxekoen alde. Uste baino errazago irabazi zuten.

Partidua hamaiketan jokatu behar zuten, baina kanpotarrak ordu erdi berandu iritsi ziren.

Arrasateko taldea 50 minutuz izan zen berotze-ariketak egiten, eta badirudi Patxi Gorosabelen mutilei on egin ziela horrek. Partidu hasieran berdintasuna izan zen nagusi, eta etxekoen lehen puntuak Oxel Etxebarriak egin zituen, zutoin artera egindako jaurtiketa bati esker. Handik aurrera etxekoak jaun eta jabe izan ziren. Lehen zatia amaitu aurretik mondragoetarrek hainbat entsegu egin zituzten. Bigarren zatian aldea txikitu egin zen, baina Irungo taldeak uste baino arazo gutxiago sortu zituen. Erraz irabazi zuten partidua etxekoek.



Lehenengo partidua baino ez zen, baina igoera faserako sailkatzeko partidu garrantzitsua irabazi zuten Patxi Gorosabelen mutilek.

**Eros ezazu
Ibai-Arteko dendetan
eta irabaz ezazu
600 euroko sari berezia!**

**Ez galdu aukera!
Urriko zozketa abian da.**

**eta gainera...
azaroan 600 €
eta abenduan 3.000 €**



ESKUBALOIA

Eskubaloiko taldeek maila polita erakutsi dute denboraldiko lehen zeingehiagokan

Etxeo partiduak Musakolan jokatu dituzte, Iturrieko kantxan hezetasun handia dago-eta

XABIER URZELAI

Asteburu nahiko biribila izan da Arrasateko eskubaloia taldeendako. Lau taldeetatik gazte mailako bigarren taldeak bakarrik galdu du. AGR Arrasatek eta gazte mailako Gatz Museoa erraz irabazi zuten. Seniorreko bigarren taldeak, berriz, berdindu egin zuten, eta kadeteek oraingo asteburuan hasiko dute Liga Txapelketa.

AGR Arrasatek eta senior mailako bigarren taldeak joan den asteburuan hasi zuten Liga Txapelketa. Gainerako taldeek baino astebete geroago hasi dute; izan ere, lehenengo jardunaldian euren artean jokatu beharreko derbia atzeratu egin zuten. Joan den zapatuan, AGR Arrasatek Urnietaren kontra jokatu zuen, eta Bernardo Balerdiren mutiak 19-31 nagusitu ziren. Senior mailako bigarren taldeak 28na egin zuten, Musakolan, Bidasoa taldearen kontra. Bidasoak denboraz kanpo egin zuten berdinke-

taren gola, zuzeneko falta jaurtiketa bat sareetara bidalita. Gazte mailan, Gatz Museoa taldeak 15-22 irabazi zuen Elgoibarren kantxan. Gazte mailako bigarren taldeak, ordea, 21-24 galdu zuen, Arrateren kontra.

ORAINGO ASTEBURUKO PARTIDUAK

Oraingo asteburuan, AGR Arrasatek etxean jokatu du. Partidua Iturripen izango da, zapatuan, 16:00etan. Seniorren partidua ondoen gazte mailako bigarren taldeak jokatu du, 17:30ean, Urola taldearen kontra. Seniorreko bigarren taldeak Zumarragan jokatu du, Urolaren kontra, zapatuan, 18:15ean.

Gazte mailako Gatz Museoa taldeak, bestalde, domeka eguerdian jokatu du, Oñatin, Aloña Mendiren kontra. Eta, azkenik, kadete mailako Gatz Museoa taldeak denboraldiko lehen zeingehiagoka jokatu du; partidu hori ere kanpoan izango da, Donostian, eta Egia taldea izango da kontrarioa. Partidua arratsaldeko lauretan izango da.



MIKEL ARANBURU

AGR Arrasatek erraz irabazi zuen Urnietan, eta Jesus Mari Herreroren mutilek berdindu egin zuten Bidasoaren kontra (28-28).

Toda la Biblia
...o casi
LONG, MARTIN & TICHENOR

Asier Hormaza
Patxi Bakco
Joseba Apaolaza

*Toda la
Biblia
...o casi*

Amaia Udal Antzokia
Urriaren 20an, domeka
19:30ean


ARRASATEKO UDALA

Kultura Saila ■



Joan den urteko Zaldibarko Txapelketako irabazleak: You Know taldea.

XABIER URZELAI

ZALDIBARKO ARETO FUTBOL TXAPELKETA

Oraingo asteburuan hasiko da aurtengo Zaldibarko Txapelketa

Joan den urtean baino hiru talde gutxiago izango dira aurtengo txapelketan

XABIER URZELAI

Bihar, zapatua, goizeko bederatzietan jokatuko da aurtengo Zaldibar Txapelketako lehenengo partidua. Bihar hasi eta ekainera bitartean areto futbola izango da nagusi Zaldibarren. Abian da herriko txapelketarik ikusgarriena!

Aurtengo hogeita zortzi talde izango dira txapelketan. Talde gehienak joan den urtean ere izan ziren, baina hainbat talde berri daude. Horrez gain, Zaldibarko Txapelketan talde garrantzitsu bilakatu diren beste hainbat taldek ez dute aurtengo parteterik hartuko: AKTA, IKP, Irati STS, Bazar Toki On, EGD eta Usotz Potroak taldeek ez dute izena eman aurtengoan. Gauza guztietan bezala, Zaldibarren ere errelebu nahitaezkoa da, eta Ekipo A, NS/NC, Whis-

keria, Billy & the Cowboys eta Saloga taldeei ongietorria eman diegu. Horrez gain, Full Duplex eta Txotx taldeko jokalariek elkarrekin egin dira eta Fuxxion taldea sortu dute. Hortaz, bihurtik aurrera, betiko jokalariez gain, aurpegi berriak ere izango dira Zaldibarren. Aurtengo ere arau berriak

izango dira: falta jaurtiketa guztiak zuzenean izango dira, eta giza hesia lau pauso handitara jarriko dute. Bestalde, partiduen ordua aldatzeko taldeek pisuzko arrazoia izan beharko dute, eta argi izan, aurtengoan, antolakuntza-koek joko zikina gogor zigortuko dutela, badaezpada ere.

Lehen jardunaldia

URRIAK 19, ZAPATUA. EPAILEAK

08:50: Saukelu Scr - Lasagabaster **Fuxxion**
10:00: Fuxxion - Dribling **Chap Dribling**
11:00: Etxerat - Maldifa's **Dribling**
12:00: Etxinai! - Koka Juniors **Etxerat**
13:00: Goma2 - You Know! **Etxinai!**
14:00: Iritz tab - Abocajarro **Goma2**
15:00: Whiskeria - Fraguél Gol **Iritz tab**
16:00: Al Kaeda - Mekanaki **Whiskeria**

17:00: Komando Alp - Betrayer **Al Kaeda**
18:00: El Ekipo A - Estu Tal Larri **Komando**
19:00: AC Surcos - Bikain Akad **El Ekipo A**

URRIAK 20, DOMEKA EPAILEAK

10:50: Aurrera Bolie - Saloga AT **Celaya**
12:00: AT Celaya - Billy & the... **Aurrera Bol**
13:00: NS/NC - Rayo Aldeano **Billy & the...**

PILOTA

Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketako partidua izango dira gaur Uarkapen

Gaur, egubakoitza, arratsaldeko zazpitan, Gipuzkoako Kluben Arteko Pilota Txapelketako partidua izango dira Uarkapen. Guztira, lau partidua izango dira: gazte mailako partidua bi eta senior mailako beste bi, hain zuzen ere.

Gazte mailako eskuz banakako partiduan Gozalok Amezketa-ko pilotari baten kontra neurtu beharko ditu indarrak. Horren ondoren, bikoteka, Zuazua eta Agirrek Azkoitiko bikote baten kontra jokatu beharko dute. Gazte mailako partidua amaitzean, senior mailako partidua jokatu dira: bigarren mailako seniorretan, Uribarrenek eta Errastik Elgoibarko pilotarien kontra jokatuko dute eta lehen mailako seniorrek, Zugastik eta Lazkanok, Azkoitiko pilotariak izango dituzte aurrez aurre.

Joan den astean jokatutako partiduetan, gazte mailako eskuz banakako partiduan Gozalok 22-14 galdu zuen Zumarragako pilotariaren kontra. Bikoteka, seniorreko bigarren mailako pilotariak, Uribarrenek eta Errastik, 22-4 irabazi zuten Zumarragako pilotariaren kontra. Eta seniorreko lehen mailako pilotariak, berriz, Zugastik eta Lazkanok, 22-10 galdu zuten Añorgakoen kontra.

FOTOKIROLA



Mondra liderra da hamar punturekin

Mondra futbol taldeak hiru puntu garrantzitsu ekarri zituen Zestoatik. Zestoaren kontra arrasatearrek erraz irabazi beharko lukete, baina Zestoako futbol zelaia ez zegoen batera ondo. Zestoarrek 2-0 aurre hartu zuten, eta Mondra azkeneko hogeita minutuetan lau gol egiteko gai izan zen. Asier Gonzálezek hiru gol egin zituen, eta Jon Muruamendiarazena izan zen laugarrena. Domekan, arratsaldeko lauretan, Urola taldearen bisita izango da, Atxabalpen. / X.U.

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

"PAL"

Burdindegia

Brikolajea

Tresneria

Uribarri etorbidea, 3
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE



KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis • Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxes: 943 - 79 78 14
ARRASATE

'Toda la biblia... o casi' antzezlanak eskainiko dute Amaia Udal Antzokian

IKER BARANDIARAN

Urriaren 20an, domekan, Kanpingags&Txalo taldeak *Toda la biblia... o casi* lana antzetzuko du Amaia Udal Antzokian, 19:30ean. Asier Hormazak, Patxi Barco eta Mikel Laskurainek Itun Zaharraren eta Itun Berriaren interpretazioa egingo dute.

Urriaren 20an, domekan, Kanpingags&Txalo antzerki taldeak produkzio berria aurkeztuko du Arrasaten, Amaia Udal Antzokian. Izan ere, *Todo Shakespeare o casi* antzezlanak aurkezteko bira bukatu ondoren, Kanpingags&Txalo taldea *Toda la biblia... o casi* lana prestatzen hasi zen buru-belarri. Azkenean, 2002. urteko uztailearen 11n aurkeztu zuten lan berria. Estreinaldia Donostiako Antzerki Jaialdian izan zen, Egia auzoko Jareño aretoan, hain zuzen ere. Orduetik hona lan hori hainbat antzokitan antzetzu dute.

GURERA EGOKITUTAKO IDEIA

Reduced Shakespeare Company-ko Adan Long-ek, Reed Martin-ek eta Austin Tichenor-ek *The Bible: the complete word of God (abridged)* idatzi zuten. Gero, Patxi Barco, Patxo Telleriak eta Carlos Zabalak haiek idatzitako istorioa Euskal Herriko umore- eta kulturara egokitu zuten eta *Toda la biblia... o casi* antzezlanak idatzi zuten.

Hormaza, Apaolaza eta Barco oso gustura gelditu ziren *Todo Shakespeare* lanaren esperientziarekin, eta hirurak telebistan beste lan batzuk egiten badabilta ere, beste antzezlan bat aurrerantzeramatea erabaki zuten. Eta

horrelaxe jaio zen *Toda la biblia... o casi* antzezlanak.

LINCOLN VS. OLANO

Euskal aktoreek oinarritzko istorioari hainbat aldaketa ezarri dizkiote: esaterako, istorio orijinalak *Abraham* delako bat berbagai dauka; anglosaxoiendako egindako muntaian *Abraham* hori Abraham Lincoln da eta Kanpingags&Txalok egindakoa, berriz, Olano da *Abraham*.

Bestalde, antzezlan horren arduradunek argi dute euskal gizartea oso erlijioso dela, baina baita txiste erlijioso krudelak gustuko ditugula ere. Dena dela, erlijioa kritikatzear gainera, besteak beste, politika eta tradizioa ere berbagai dituzte.

Toda la biblia... o casi ikuskitunean hiru abadek -Asier Hormazak, Patxi Barco eta Mikel Laskurainek- Itun Zaharraren

eta Itun Berriaren irakaspenak egiten dituzte. Izan ere, antzezlanaren arduradunen esanetan, ia inork ez ditu Bibliaren azalpenak ulertu, eta, horren ondorioz, horiek azaldu beharrean gaude.

Antzezlan horretan Jesukristoren nerabezaroa, gizateariaren hazkunderaren misterioa, Abelen eta Cainen arteko benetako harremana, Jesukristoren gurutziltzatzea eta beste hainbat kontu azaldu gura dituzte. Bibliaren azalpen berri horiek eman ahal izateko, Hormaza, Barco eta Laskurain teologoek argitaletxe bat sortu zuten, Puente de Duesto izenekoa. Argitaletxe horren bitartez liburuak saltzen hasi, eta salneurri merke baten truke, Jainkoaren hitza predikatu eta ia Biblia osoa kontatuko dute.

BIBLIA, HILKETA KONTUEZ JOSITA


Hiru abadeek Bibliako hainbat eta hainbat pertsonaia irudikatuko dituzte. Jainkoaren papera, berriz, nonahikoa izango da eta hiru aktoreak haren papera txandaturuz joango dira, Jainko onbera edo krudela den arabera.

Patxi Barcoren hitzetan, "antzezlan horrek ez dauka inongo helburu pedagogikorik, eta uneoro lotsagabekeria eta umore garratza oso presente daude". Are gehiago, Patxi Barco berak zera azpimarratu zuen: "Ia ezinbestekoa da Itun Zaharraren irakurketa atsegina egitea, liburu hori hilketez eta odolez josita dago-eta".

Arlo estetikoari dagokionez, antzezlan horren eszenografia zabalik dagoen liburu batek osatzen du, eta liburutik bertatik historiako orrialdeak gainetik irakurriz joango gara.

Hiru abadek, liburu saltzaile lanetan, merke-merke, Jainkoaren hitza predikatuko dute

Kanpingags&Txalok istorio orijinala Euskal Herriko umore eta kulturara egokitu du



Datorren egubakoitzean, Amaraun taldearen emanaldia

I.B.

Datorren egubakoitzean, urriaren 25ean, Kultur Errotak eta AEDk antolatuta, jazz eta euskal musika uztartzen dituen Amaraun taldeak kontzertua eskainiko du Arrasaten. Amaia Udal Antzokiko 'hall'-ean izango da kontzertua eta 22:30ean hasiko da.

Kultur Errota lanean dabil, baita AED bera ere, eta datorren egubakoitzean, urriaren 25ean, kontzertua antolatu dute Arrasaten. Jazz eta euskal musika uztartzen dituen Amaraun taldeak Amaia Udal Antzokiko 'hall'-ean emango du kontzertua, 22:30ean, hain zuzen ere.

Amaraun musika taldea Ander Ertzillak, Javier Olabarietak, Javier Fernández de Jauregi eta Iñaki Jaiok osatzen dute. Ander durangarra da eta oboea jotzen du, Javier Olabarieta iruindarra da eta pianoa jotzen du, Javier Fernández de Jauregi gasteiztarra da eta kontrabaxua jotzen du, eta, azkenik, Iñaki Jaio durangarrak bateria jotzen du. Horiek osatzen dute taldea, eta denek ere musika eza gutza handia dute; izan ere, gehientsuenak musika eskoleta-

ko irakasleak dira. Are gehiago, Iñaki Jaio Mikel Markezaren taldean aritu izan da eta Javier Olabarietak Reinhard Valeruz kontrabaxu jotzaile austriarrarekin hainbat kontzertu eman izan ditu.

HERRI KANTUAK ETA JAZZA

Musikari birtuoso askok bezalaxe, Amaraun taldekoek jazz oso gustuko dute. Dena dela, konposizio originalak jotzen dituzten arren, beste era bateko kantuak ere badituzte. Herri musikatik hartutako hainbat pieza moldatu eta jazzaren lengoaiarekin eta Amarauneko taldekideen zuzeneko inprobisazioarekin aberastu dituzte.

Euren emanaldietan jotzen dituzten herri kantuen artean, honako hauek nabarmenduko genituzke: *Maskaradako Barrikada*, *Santaiageda*, *Bonbolontena* eta *Goizian Goizik*. Horrez gain, Miles Davis-en *Blue in green* kantua eta Joseba Sarrionandiaren hitzak dituen *Gaiherdiko ametsa* ere eskainiko dizkigute, besteak beste.

Amaraunek diskoa kaleratu berri du, *Laida* izena duena. Lan hori Elkar diskoetxeak argitaratu du eta disko horretan oso agerian dago jazzaren eta herri musikaren arteko oreka.

KULTURAPILULAK

Ekin-ek zuzenbidearen eta eskubideen gaineko informazio lantegia antolatu du

Ekin Emakume elkarteak datozen eguenetarako hainbat informazio lantegi antolatu ditu. Esaterako, urriaren 31tik azaroaren 21era, eguenero, Emun Kooperatibako Ainhoa Larrañagak zuzenbidearen eta eskubideen gainean berba egingo du: ezkontza erregimena, izatezko bikoteak, oinordetza, pentsioak, mailegu kontratuak... Lantegia 18:00etatik 19:30era egingo dute, elkartearen bertan. Interesatuok izena eman, urriaren 28a baino lehen, Ekin Emakumeak taldeak Pablo Uranga 6.enean duen bulegoan.

Arrasatearrek euskaraz duten eskaintza jakiteko, Euskaini egitasmoa abian

Arrasateko Udalak, arrasatearrek euskaraz zein eskaintza duten jakiteko asmoz, Euskaini izeneko egitasmoa abian jarri du. Hori izango da Arrasateko egoera linguistikoa neurtzeko adierazle berria. Sei arlo aukeratu dituzte, eta datorren astetik aurrera, sei hilabetean, datu bilketa egiten ibiliko dira. Egitasmoaren ardura nagusia Sei enpresari egokitu diote.



Urriaren 20an ageri den Joseba Apaolazaren ordez, Mikel Laskurain etorriko da. Eta Mikelekin, Asier Hormaza eta Patxi Barco.

E, TXO!

GUREGAIK/ IRAKURZALETASUNA BULTZATZEKO EKIMENA

LUDOTEKA ITXITA

Joan den eguena ezker (urriak 10) itxita dago Okendo kaleko ludoteka. Txatxilipurdik jakinarazi duenez, urarekin arazoak dituztelako itxi dute, eta erabiltzaileei barkamenak eskatu gura dizkiete. Arazoa konpondu bezain laster, herritarrei jakinaraziko diete.

TXIKILANDIARAKO BEGIRALE BILA DABILTA

Txatxilipurdik urtero antolatzen duen Gabonetako Txikilandia parkean begirale izateko epea azaroaren 30a arte zabalik dago. Baldintza bakarrak dira euskaraz jakitea eta hamazortzi urte baino gehiago izatea. Interesatuok, jo Txatxilipurdira izena ematera.

LARUNBLAI ANTOLATU DUTE

Bihar, zapatua, Txatxilipurdik Larunblai antolatu du. 11:00etatik 13:30etara, txotxongilo lantegia izango dute herriko plazan. Eguraldi txarra egiten badu, Udaletxeko arkupeetan bilduko dira poliespaneko txotxongiloak egiteko.

Gazteen irakurzaletasuna bultzatzeko ekimena

IKER BARANDIARAN

Sarri entzun dugu gazteek geroago eta gutxiago irakurtzen dutela, eta irakurtzea baino gehiago beste zaletasun batzuk gurago dituztela. Bada, joera horri aurka egiteko ekimen bat izan da herrian.

Oraingo astean -martitzenean, eguaztenean eta eguenean, hain zuzen-, autobus bitxi bat Jokin Zaitegi plazan aparkatuta egon da. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak eta Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak Xaguxarrak ekimena ekarri zuten Arrasatera, Arizmendi Ikastolak eskatuta.

Xaguxarrak deritzon ekimen horrek hiru urte daramatza abian, eta Arrasatera oraingo astean etorri da lehenengo aldiz. Autobus horrek barruan dituenak: zortziehun liburu inguru dituen liburutegia, zortzi ordenagailu, telebista, bideoa eta musika ekipoa. Horrez gain, begirale bi ari dira zerbitzua ematen.

Ekimen horren helburua da

Xaguxarrak ekimenak gazteei irakurtzeko erraztasunak ematen dizkie

gaztetxoan artean irakurzaletasuna bultzatzea. Horretarako, egunotan, herriko ikastetxeetako DBHko lehenengo eta bigarren mailako ikasleak, taldeka, Xaguxarrak ekimenaren autobusean izan dira.

HILABETE BARRU AUTOBUSA BUELTRAN

Herriko gaztetxo asko izan dira autobusean. Hortik aurrera, gaztetxoek hilabetean liburu bat irakurri beharko dute, eta hilabete barru Xaguxarra autobusa bueltatzen denerako ikasleek irakurketaren eta irakurzaletasunaren gaineko hainbat galdera erantzun beharko dituzte.



Gazteek erabilera ona ematen diote Xaguxarrak ekimeneko autobusari.

Bestalde, begiraleek autobusera hurbildutako gazteei hainbat joko dituen CD-ROMa eta liburuxka bana eman zizkieten. Liburuxkak *Irakurritako (eta salbatutako) liburuen albuma* izenburua dauka. Liburuxka banean, gazteek bete beharreko inkestaz gainera, hainbat liburu aholkatzen dizkiete gaztetxoei.

Hamabi urtetik aurrerakoendako, Pako Aristiren *Din, dan,*

don, kanpai lapurrak non, Bernardo Atxagaren *Bambulo: Ternuako penak*, eta Asun Baltzolarren *Euli zamorroa*, besteak beste.

Hamalau urtetik aurrerakoendako ere badituzte irakurtzeko liburu proposamenak: Aitor Aranaren *Afrikako semea*, Jon Arretxeren *Ostegunak*, eta Patxi Zubizarretaren *Atlas Sentimentala*, besteak beste.

Gazte ikastaroak

AFRIKAR PERKUSIOA

Azaroaren 18tik 2003ko urtarrilaren 27ra arte.

Astelehenetan, 18:00etatik 20:00ak arte.

Izenematea: 35 €

Gazteluondoko lokaletan

IPUIN KONTALARI IKASTAROA

Urriaren hasi eta abendura arte, 20 orduko ikastaroa

Ostegun arratsaldeetan, 18:30etik 20:30ak arte.

Izenematea: 30 € / 15 € ikasle eta langabeendako.

EUSKAL DANTZA

Lore Gazteak taldearen eskutik.

10 urtetik gorakoendako.

Urriaren 18tik abenduaren 13ra arte.

Ostiraletan 19:00etatik 20:30ak arte.

Lore Gazteak taldearen lokaletan.

Izenematea 9 € izango da.

DANTZA AFRIKARRA

Azaroaren 18tik 2003ko urtarrilaren 27ra.

Astelehenetan, 20:00etatik 21:30ak arte.

Izenematea: 40 €

Gazteluondoko lokaletan.

Perkusio afrikarreko eta dantza afrikarreko tailerrak, biak, egin nahi izanez gero, izenematea 65 € da.

IRRATI TAILERRA: Esataritza

Irakaslea: Gaizka Bitoria

Arrasate Irratian

Urriaren 19tik azaroaren 30era arte

Zapatu goizetan, 11:00etatik 13:00ak arte

Taldea: gehienez, 7 lagun

15 urtetik gorakoei zuzendua

Izenematea: 30 €/ 15 € ikasle eta langabeendako

Ikastaro hauetan izena emateko, Gazte Bulegora jo edo 943 77 00 65 telefonora deitu.

Gazteria Saila



ARRASATEKO UDALA

BEHEKOGIMNASIOTIK

Javier García

IRUDI SPORT GIMNASIOKUE

XABIER URZELAI

Javier Basaurikue da, eta oin dala hillebete eta erdi hasi zan Mondraguen lanien. Herrixan gaiñeko galdera batzuk erantzuteko, akaso, goixegi izengo da, baiñe kanpotar baten ikuspegi-xe beti da eskertzekue. Urte asko daroie gimnasiuetan lanien, nahiz eta karrerie oin dala gutxi bukatu dauen.

Amets bat?
Lanbide honetan gabitzenon moduen, egunen baten negozio propio zabalketie.

Eta amets txar bat?
Ez dakit. Momentuz, gurago dot baikorra izetie.

Egin dozun azken biajie?
Juen dan urtien Frantzian egon nitzen, ikesten.

Txartel horixe, zeñei?
Oin dala gutxi kaleko istilluek izen zien Mondraguen, eta gazte batzuk ikusi nittuen kotxiak mobiduten. Ez jaten ondo pentsau.

Eta gorrixe?
Kaleko istilluetatik haruntzago jueten dienei.

Pelikula bat? Liburu bat? Disko bat?

12 monos asko gustau jaten / *La historia interminable* / *Operación triunfo* ez dan beste zeozer.

Drogak legalizauko zittukie?

Ez.

Eta prostituziñue?

Baietz esango neuke.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Txikiteue.

Ze dauketzu sobran?

Gauzek egitteko gogue.

Eta faltan?

Gauza horreik egitteko dirue.

Etxeko zapatillek ala zapa-tak?


Zapatak.

Ze gustetan jatzu Mondra-guetik?

Jentie. Denpora laburre daroiet hamen, baiñe jentiek oso tratu ona dauket.

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Uste dot hamen be aparkatze-



X.U.

“Uda partien gorputze erakusteko asmue daukonak oinddittik hasi biher da lanien”

ko arazuek dauketzuela.
Eta lehendakari izengo bazit-ze?
Oso galdera gatxa da hori. Asko pentsau biherko neuke.
Mendi bat?
Hamenguek ez dittut asko ezauketan, baiñe gustetan jat mendire juetie.
Bizi izetera hiri batera jue-tekotan, nora?
Danetan daguz gauza onak eta txarrak. Donostiara, Bilbo baiño polittague da-eta.
Ezagutu dozun pertsona inte-resante bat?
Ez dakit, ba...
Eta ezagutu nahiko zeunke-ena?

“Neuri ‘Bodycombat’ gustetan jat gehixen; arte martzialak eta aerobika nahasten die hor”

Ez dauket idolorik.
Tranpan ibilttekotan nor-baittekin, zeñekin?
Neska batekin baiño gehixagokin. Behin hasitte, ganoraz egin.
Bizio bat?
Jatie.
Neguen ez da gorputze era-kusten; merezi dau etortie?
Bai, asmue hori bada, datorren urtien erakusteko oinddittik hasi biher da.
Aerobik klase asko dago; zein gustetan jatzu gehixen?
Bodycombat; arte martzialak eta aerobika nahasten die hor.
Kirola, aire zabalien ala hor-ma artien?
Aire zabalien, duda barik.

NIREBIDAIAHURA/ Sergio Hernando

Balira (Indonesia) / 2002ko abuztuan

Egunotan, Indonesiako uharte hura guztion aho-tan egon da. Urte osoa igarotzen dugu Bali modu-ko leku batera joateko ametsetan, baina joan den zapatuan inork ez luke gura Balin egotea.

Sergio Hernando abuztuan izan zen Balin. Abuztuko bigarren astean abiatu zen Indonesia aldera, eta lehenengo bost egunak Bangkokin egin zituen. Sergiok arropa den-da bat dauka Arrasaten, eta hango produktuak ikusi eta gero, merkatariekin tratuan egiteko aprobetxatu zuen. Bali oso leku turistikoa da, Kuta Beach, batez ere. Merkatarit-zaren sektoreak sekulako indarra dauka: “60ko hamar-kadan nahiko leku bohemiarra zen hura, baina gaur egun, oso leku turistikoa da”.




“Ez dut uste atentatu hori Baliko bizilagunek egin dutenik”

Sergiok ez du uste zapatu-ko atentatua hango herrita-rrek egin zutenik: “Hangoak oso bakezaleak dira, oso jende lasaia da, nahiz eta han ere independentziaren aldeko tal-de bat badagoen”. Telebistako irudiek argi eta garbi erakus-ten dute zenbaterainoko tris-kantza sortu duen bonba leher-ketak: “Atentatua izan zen dis-kotekan behin baino gehiagotan izan nintzen. Dis-koteka nahiko txiringiteroa zen, zati bat estali barik zego-en, eta hura zen hiriko diskoteka ezagunenetakoa. Oso jende gaztea egoten zen diskoteka hartan, surflari asko, eta gehienak atzerritarrak”.

Hegazkinez joanez gero, Japoniatik ordu bat baino ez da behar Balira joateko, eta Australiatik ordu bi. Argi dago, hortaz, oporralldirako oso leku aproposa dela. Hala ere, leku hura nahiko mitifikatua ei dago: “Ez pentsa hondartzak oso onak direnik. Horrez gain, dagoeneko ez da leku tropikala, oso esplotatua dago, oso turistikoa da”. Sergiok Balira itzultzeko asma zeukan, hantxe ikusita-ko hainbat produktu oso interesgarriak iruditu zitzaiz-kion-eta. Hala ere, egunotan gertatu dena ikusita, bidaia hori egiteko apur bat gehiago itxarongo duela uste du: “Orain ez da unerik aproposena hara joateko”.

XABIER URZELAI



Sergio, Baliko hondartza baten, hango gaztetxo batzuekin.

BASATI TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
TEL. 943 711762

HIES BERRI
Tel.: 943 79 26 99

TTUKUN
• Fotokopiak
• Liburu jostekak
• Fotokopiak koloretan
• Planoen kopia
• Offset-a
Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

Mobiliario ARENAZA
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



ARRASATE
Jesus Mari Zabarte
Urriaren 6an, urtebete-tzea. Zorionak, aita! Hurrengo, etxean. Ihintz.



ARRASATE
Jon Unamuno
Urriaren 27an, 30 urteko. Zorionak, pottoko! Usurbilgo Izaskun.



ARRASATE
Txomin Arriaran
Urriaren 21ean, urtebete. Zorionak, maitia! Aita, ama eta etxeokak.



ARRASATE
Lorea Urrutxua
Urriaren 7an, 13 urte. Zorionak, Lorea! Muxuak. Ihintz.



ARRASATE
Julen Abarrategi
Urriaren 22an, urtebete. Zorionak! Etxeokak.



ARRASATE
Elena Orueta
Urriaren 20an, 6 urte. Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE
Lorea Aizpuru
Urriaren 11n, 5 urte. Zorionak! Etxeokak.



ARAMAIO
Leire Elejalde
Urriaren 16an, 2 urte. Zorionak! Aita-ama, aita eta amama.



ARRASATE
Txomin Arriaran
Urriaren 21ean, urtebete. Zorionak, txikirrito! Marga, Eugenio, Juanita, Nerea, Miren, Karlos, Ihintz, Igor eta Mikel.



ARRASATE
Lorea Urrutxua
Urriaren 7an, 13 urte. Zorionak, sorgintxo! Muxu bat Mexiko aldera. Etxeokak eta Benito.



LOGROÑO
Elena Rodrigo
Urriaren 15ean, urtebete-tzea. Zorionak! Lagunak eta etxeokak.



ARRASATE
Agoitz García
Urriaren 15ean, 9 urte. Zorionak! Etxeokak.



ARRASATE
Ander García
Urriaren 14an, 6 urte. Zorionak! Etxeokak.



ARRASATE
Mónica Álvarez
Urriaren 18an, 24 urte. Zorionak! Andoni.



ARRASATE
Ander Agirre
Urriaren 18an, 15 urte. Zorionak! Etxeokak.



ARRASATE
Aroa Etxaniz
Urriaren 19an, 17 urte. Zorionak! Etxeokak.



ONATI
Iñigo Gorostidi
Urriaren 18an, 2 urte. Zorionak! Arrasateko aiton-amonak.



ARRASATE
Jone Ugarte
Urriaren 21ean, 11 urte. Zorionak! Etxeokak.




ARRASATE
Eneko Hernández
Urriaren 23an, 27 urte. Zorionak! Lagunak.



ARRASATE
David Dávila
Urriaren 23an, 24 urte. Zorionak! Lagunak.



ARRASATE
Eider Markaide
Urriaren 22an, urtebete-tzea. Zorionak! Aretxabaletako kultura etxetik.



Zorion itzazu zure lagun eta senitartekoak.
Zatoz Arrasate Pressera martitzena baino lehenago argazki batekin eta utzi gure esku!
Otalora lizentziaduna, 31.



Elgeta-Piel

Domingo Iturbe 8
ELGETA
943 76 81 12

*Udazkena
eta negua
iritsi dira
Elgeta
Pielera*

**Martitzenetik zapatuta:
17:00-20:00.
Domekak:
11:00-13:30.
Astelehenetan itxita.**




EZETZASMATU



XABIER URZELAI

Zenbat arku zeuden garai baten Mondragoeko alde zaharrea?
Eta gaur egun, zenbat arku geratzen dira?



Super BM emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **EGUAZTEN**
EGUERDIRAKO ARRASATE PRESSERA!

Gran Duque ardoa
Beltza, gorria edo zuria. Litroko brika

2X1€

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

IZASKUN UNAMUNOrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Izaskun!
Galderen erantzun zuzenak:
1999ko abendua.

ARRASATEKO HISTORIA

Monterron jauregia: hiru mende eta erdiko eraikina

ION ANDER RAMOS

Ezin dezakegu zehaztasunez esan noiz eraiki zuten Monterron jauregia; izan ere, 36ko gerran datu horiek galdu egin ziren. Mateo Arangurenek agindu zuen Monterrongo eraikina egitea, XVII. mendearren erdialdean; orduan ezkondu ziren Mateo Aranguren eta Maria Saenz de Andikano. Jauregiaren horma nagusian familia bi horien armariak daude.

1964an, Monterron jauregia monumentu historiko-artistiko nazional izendatu zuten, baita inguruko lorategia ere. Duda barik, probintzian dauden garai hartako eraikinen artean ondoen kontserbatuta dauden artean dago Monterron jauregia. Orduko eraikinen eredu garbienetako eta nagusienetako bat da.

Jauregiko gauza azpimarragarrienetako bat atondo da; egin zutenean bezala dago, ondo zainduta. Zoru ertz errekarriaren erdi-erdian konderriko koroa ikus daiteke, diotenez, frantsesen hezurrekin egina. Kasetoidurako zutabeak ohikoak baino altuagoak dira.

“Ez dakigu noiz eraiki zuten Monterron jauregia. 36ko gerran galdu ziren datu horiek”

Orduko eraikinek bospasei metro bitarteko zutabeak zituzten, baina Monterron jauregikoak zazpi metro luze dira. Horrez gain, interes handikoak dira jauregiko leiho eta atearak; haiek garaiko burdineriaz egindakoak dira, gehienak, bai, behintzat. Hiru mende eta erdi hauetan, eraikina askotan berritzeaz gain, handitu ere egin dute. Azpimarratzeko modukoa da Monterron jauregiaren inguruan dagoen lorategia, gaur egun parke bilakatua. Hainbat zuhaitz daude han, haietako batzuk oso bereziak, sekuoiak eta sekuoia erraldoiak (wellingtonia), adibidez. Azkenik, esan behar da jauregiak hainbat errege, erregina eta pertsonaia famaturen bisita izan duela.



Hamabost egunez izan ziren Monterron jauregian Isabel II.a eta Maria Cristina, oporretan.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2002ko urriaren 18 / 43. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Bañerak hiru talde izango ditu aurtengo denboraldian; bat, gazte mailan

UBANE MADERA

Berritasunez beteta dator aurtengo Bañera taldea. Besteak beste, talde berria izango du Aramaiok areto futbolaren txapelketaren barruan: Bañerako gazte mailako taldea, hain zuzen. Horrez gain, iaz moduan, kadeteek eta neskek ere jokatuko dute aurtengo.

Pozik dira Bañera areto futbol taldeko kideak; izan ere, normalean zaila izaten bada Aramaion horrelakoetarako jendea aurkitzea, aurtengo, hori aldatu eta hiru talde izango dituzte areto futbollean jarduteko. Berritasunik nabarmenena da mutilen artean gazte mailako taldea osatu dutela. Bañera taldeko presidente Josu Bideburuk adierazi duenez, "mutilen artean, batzuk kadete mailatik gazte mailara pasatu dira; horren ondorioz, erabaki dugu gazte mailako taldea sortzea". Eta gaineratu du areto futbolaren barruan federazioerik garrantzitsuenean jokatuiko dela aurtengo Aramaioko gazte mailako taldeak.

Zortzi lagunek osatzen dute taldea hori; horietatik bost gazte mai-



Zortzi lagunek eta bi entrenatzailek osatzen dute Bañerako gazte mailako taldea.

lakoak dira eta hiru kadeteak. Bi entrenatzaile dituzte: Juanjo Arias eta Jorge Núñez. Dena dela, Josu Bideburuk adierazi duenez, "jokalari gehiago izanez gero,

hobe izango litzateke, hamar bat-edo izango litzateke egokiena". Baina horretarako, Arrasatetik edo inguruetatik hartu beharko litzukete jokalaria.

NESKAK ETA KADETEAK

Bañerako beste bi taldeak, berriz, neskena eta kadeteena, aurreko urteetako jarraipena dira. Hau da, Diputazioak bultzatutako Esko-

Bañerako nesken taldea mailaz igo da aurtengo, eta kadeteen kontra jokatuko du

la Kirolaren barruan segitzen dute; hori bai, neskek mailaz igo dira aurtengo, eta kadeteen kontra jokatu dute. Bederatzi jokalaria dira taldean, eta Alberto Ibañe eta Txumai dira entrenatzaileak.

Kadete mailako mutilak, berriz, zortzi dira. Bi entrenatzaile dituzte: Alberto Untzalu eta Igor Aiestui.

Hortaz, ikusten denez, ondo antolatutako taldeak dituzte aurtengo Bañerakoek. Orain, partiduen egutegia noiz zehaztu zain daude hiru taldeak.


2002-2003 denboraldiaren gainean Josu Bideburuk adierazi digu espero duela herritarrek taldeak animatzera joatea, bereziki, etxean jokatzeko dutenean. Hori bai, betiere, gainerakoekiko errespetu osoa erakutsita animatzea eskatu du Josu Bideburuk.

ATREBENTZIAEZPADA/ Nora jotzen duzu sarriago, Arrasatera edo Gasteizera?



NOE MIGUEL
Erretiratua

Gasteizera sarriago. Hiriburua izanda, denetik dago. Jeneralean, erosketak handiak egitera, jantziak erostera... joaten naiz.




MIKEL AIESTUI
Langabea

Arrasatera, duda barik. Edozertarako. Parrandarako Gasteiz ere gustatzen zait, baina jeneralean Arrasatera jotzen dut, jende gehiago ezagutzen dut.



OLGA JAUREGI
Langilea

Eguneroko erosketak egitera, Arrasatera, baina jantziak eta horrelakoak erostera, Gasteizera. Zinemara ere Gasteizera joaten naiz.



ALATS ARANA
Erretiratua

Erdizka. Arrasatera sarriago, eguneroko erosketak egitera-eta. Gasteizera noizbehinka joaten naiz. Denbora-pasa ere Gasteizera joaten naiz.



ALEX MENDIKUTE
Langilea

Arrasatera. Eguneroko erosketak Aramaion egiten ditut; parranda egitekotan Arrasaten. Zinema Gasteizen, eta bestela, Arrasaten eta Aramaion.

LABUR

Autobus zerbitzu berria ez da premiazkoa

Hala uste du Arrasateko Udalak. Kontua da oraingo astean Gasteiz, Aramaio eta Arrasate zeharkatzen dituen autobus zerbitzuaren berri eman diola Aramaioko Udalak Arrasatekoari; eta galdetu dio ea interesik baduen zerbitzuarekin. Arrasateko Udalak erantzun dio oso zerbitzua interesgarria dela, baina "Arrasateko Udalak antzerako zerbitzua ematen duen auto-taxia kontratatuko duela hurrengo lau urteetarako". Horrenbestez, ez du premiarik ikusten.


KULTURA

Kultura ekimenak aramaiotarren eskura asteburuan

Asteburu bete-betea gura duenari ez zaio aukerarik falta izango oraingo asteburuan. Izan ere, batetik, Anboto tabernan kontzertua izango da zapatuan, 21:30ean. Oraingo honetan Gasteizko Hierro taldea gonbidatu dute Ibarrako tabernara. Los Padrinos izeneko taldearen abeslari ohia da Hierro taldeko kide-etako bat.

Domekan, berriz, ikastolen aldeko jaia ospatuko dute Tuteran: Nafarroa Oinez. Hara joateko aukera izango da; izan ere, autobusa antolatu du Aramaio-ko Udaleko Euskara Zerbitzuak. 08:30ean irtengo da, domekan.

Bestelako plan motaren bat egin gura dutenek, berriz, organo eta ahots kontzertua izango dute aukeran Legutio. Eguerdi-ko hamabi eta erdietan hasiko da. Floren Untzueta aramaiotarrak emango du kontzertua, Unai Ibáñezekin eta Iñaki Cantón Uriondorekin batera.



HERRIKOIPUINAK

ANBOTOKO DAMA I

Berajuengo udalerrian gaztelu handi bat zegoen, almenaduna, eta almenak hamaika dorrez inguratuta. Inguru guztia defendatzeko putzu zabala zuen.

Hango lantegiak ehun bat urte zituen; Zalgogarain, berriz, dorre umil bat zegoen, ez zen oso zabala eta paretak eta atea bakarrik zituen defendatzeko.

Zalgogarainen gaineko txutxu-mutxu ezohikoak entzuten ziren bailarako bizilagunen artean.

Hamar urte lehenago Najerako erreinutik bizar luzedun gizon bat etorri zen, larruzko jantziekin. Eta b0ehar zituen bitarteko guztiak erabilia, dorre hura eraiki zuen.

Handik gutxira, beste gizonetako bat etorri zen. Hura ere bizar luzeduna, baina ez zituen aurrekoaren moduko jantziak: birreta zuen, besteak beste.

Aurrenekoa desagertu zen. Bigarrena eraiki berri zegoen dorrean geratu zen.

Belar eta landare guztien dohainak ezagutzen zituen; mirariak egiten zituen horiekin eta mota guztietako gaitzak sendatzen zituen.

'La Dama de Amboto'
Sotero Manteli

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuliako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoaren ordutan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu behar dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

HOBİ SEPTIKOEN GARBİKETA

Aramaioko Udaletik jakinarazi dutenez, laster herriko hobi septikoak garbitzeari ekingo diote. Hortaz, udal hobi septikoekin batera hobi septiko partikularrak garbitu gura dituztenek norberaren izena eta hobiaren kokapena jakinarazi behar diote Aramaioko Udalari. Datorren martitzena (urriaren 22a) baino lehen eman behar da izena.

BAÑERA TALDEAREN PARTIDUA

Oraingo zapatuan jokatu du Bañerako gazte mailako taldeak denboraldiko aurreneko partidua, Gasteizko Judimendi kiroldegian, 11:15ean. Bañerako gazteek El Pilar Marianistas taldea izango dute aurrez aurre.

ZALDIBARKO TXAPELKETA

Arrasaten jokatu den Zaldibar Txapelketa hastear dago. Eta aurten ere izango da Aramaioko ordezkariak. Gainera, talde batek behar baino, bik jokatu dute: Rayo Aldeanok eta Ekipo A taldeak. Aurreneko jardunaldia bihar, zapatua, izango da.

BOTEPRONTOAN / Fernando Iartza · Iturrieta sagardotegiko sukaldaria

"Normala da euskal sukaldea modan egotea; geure sukaldea garbi-garbia da, ia-ia sendagarria"

Fernando Iartza oñatiarra da, baina Aramaion dihardu beharrean, Iturrieta sagardotegian sukaldari. Aramaioa iritsi aurretik, makina bat lekutan ibilitakoa eta hamaika leku ezagututakoa da. Hara, Arrasate Irratari kontatutakoa:

Irratia lehenagotik ere ezagutzen duzu, ezta?

Lau urte eman nituen Radio Euskadin, errezetak ematen. Errezetak bakarrik?

Txisteak ere kontatzen nituen eta poemak irakurtzen nituen... porruari, patatari, kipulari eta sukaldeari berari ere egin izan dizkiet poemak.

Urte mordoak kanpoan eman eta gero, zer moduz Aramaion?


Ondo. Etxean moduan nago. **Baina sukalde mordoak ezagutu dituzu, ezta?**

Oñatin, Donostian, Bilbon, Iruñean, Bartzelonan, Andorran, Mallorcan, Suitzan, Alemanian, Frantziar, Alejandrian... Leku askoan ibilitakoa naiz. Ameriketara joatea falta zait. Oraindik ere joango naiz. (Barreak).

Azken urteotan Mallorcan izan duzu jabetxeren bat...

Palman, Basarri izenekoa. Bederatzi bat urtez izan dut jabetxea han.

Eta zer moduz?



Ondo. Jateko leku guztietan izaten da jendea; batzuek *Mc Donalds*-ak gurago dituzte, beste batzuek ondo jan gura dute.

Baina zuk beti euskal sukaldaritza...

Beti. Eta babarrunak-eta hemendik eramandakoak. Buzkantzak, txorizoa, gazta, bakailaoa... Okela ere bai. Horixe da desberdina; han erosita, ez da berdina.

Mallorcakoei gustatzen zaie hemengo jana?

Askok. Mundu guztikoei.

Mallorcan printzesaren baten etxean egin duzu lan...

Bai. Tocotua familiarekin. Emaztea Mallorcakoa da; eta senarra Ertamerikakoa. Zaldiak dituzte. Artistak joaten dira, Espainiako Erregea, kirolariak... Zaldiak erostera, preparatzen...

Erregeak zelan jaten du?

Ondo, apur bat txotxoloa da,

baina... Sukaldera sartzen da galdetzeraz, lagundu ere egiten du, baita Sofiak ere.

Eta zein berriketa izan zenuen haiekin?

Ezer gutxi. Zer egingo nuen galdetzen zidan, eta esan zidan bezperakoa oso ona zegoela.

Hortaz, askotan joaten zen?

Bai. Ez dakit egia izango den, baina han esaten dute urte askoan Tocotuako printzesa Erregearen erdi nobia izan dela-edo... Nik ez nuen ezer ikusi.

Michael Douglas ere izan zen, Catherine Z. Jonesekin; zelan jaten dute?

Ondo, ez dute ezer berezirik jaten. Berdura asko, okela plantzan... Dena oso garbia.

Euskal sukaldaritzarik ez?

Bai. Ipinien. Babarrunak izugarri gustatu zitzaizkion Douglasi. Eta legatza saltsan... Behin, Erregea eta Michael Douglas, biak etorri ziren bisiguaren kazola ogiarekin

igurztera, postrearen ostean. Zeini gustatuko litzaizuke afari goxo bat prestatzea? Amari, legatza saltsan.

Badirudi euskal sukaldea modan dagoela...

Normala. Gure sukaldea garbia da, ia-ia sendagarria. Berdura, arraina, okela... Dena garbia.

*Oñatin, Bilbon,
Andorran,
Mallorcan, Iruñean,
Suitzan... ibili
naiz lanean*

*Behin, Erregea eta
Michael Douglas,
biak etorri ziren
kazola ogiarekin
igurztera*

ERRETRATUZAHARRA

Esne
saltzaileak
kalera bidean

J oan den mendearen erdialdean, 1950-60ko hamarkada inguruan, emakumeak indar handia hartu zuten baserriko ekonomian; izan ere, industrializazioak eraginda, baserri ingurua hustu eta nekazari ugari (gazteak, bereziki) herri eta hirietara jaitsi zen beharrera. Gehien baloratzen zuten lana gizonetzkoena zen, eta, horren ondorioz, leku gehienetan emakumea geratu zen baserrian. Hori dela eta, etxeko lanez gain, baserriko ardura gehienak ere emakumeen gain geratu ziren, eta haien erabakitzeko ahalmena ere dezente handitu zen. Hori bai, nahiz eta hori horrela izan, kanpora begira baserriaren jabea beti etxeko gizona zen.

Oraingo asteko argazki zaharrean emakumeek izan zuten zereginetako bat ikusi dezakegu: baserriko produktuak banatzea. Kasu honetan Bedoñako baserritarrak dira, eta esnea saltzera joaten ziren Arrasatera. Horrela jaisten ziren baserritik kalera: tramankulu guztiak astoan zeramatzatela. Gezurra badirudi ere, horrek aparkaleku



arazoak sorrarazten zituen Arrasaten. Izan ere, Arrasateko Udalak astoak *aparkatzeko* leku jakinak ezarrita izan arren, gaur egun autoekin gertatzen den moduan, euren gaitasun ahalik eta gertuen gura izaten zuten baserritarrek astoa uztea. Horren ondorioz, askotan leku desegokian uzten zuten animalia,

eta bati baino gehiagori ipini zion orduko aguazilak isuna: 25 pezeta.

Edozelan ere, normalean, *aparkatzeko* lekuetan uzten zituzten astoak. Arrasaten bost zeuden: Zerkaostetan, Labekua; San Agustinen, okindegiko patioa; Ferixalekuan beste bat; Zaldibarko pilotalekuaren atzeko aldean

laugarrena eta bosgarrena, berriz, Bediatarren lantegi zaharretik eta Acción Católicaatik gertu.

Argazkia eta informazioa: 'Arrasateko Emakumeak XX. mendean' liburua
Urtea: 1950-60ko hamarkada

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Arrasateko
ekialdea
berbagai

Argazki batzuk ateratzeko nahiko lan izaten dugu. 1960ko argazkia Kurtzetxiki inguruetatik dago aterata, eta gaur egun, pinuak bakarrik daude. Saihesbidetik ateratzeko ere nahiko lan izan dugu, hantxe ere zuhaixka mordoa dagoelako; hortaz, argazkia ez dago leku beretik aterata. Zaldibarko etxeak ez ditugu harrapatu, eta Grupo San Juan, justu-justu.



≈ 1960

Garai hartan, Aldaiko etxeak egiten ari ziren, eta Cerrajerako eraikina ere zutik zen. Makatzena, baina, egin barik zegoen.



2002

Makatzenako eta Aldaigaineko etxeak. Gaur egun, Arrasateko ekialdea asko hazi da, eta enpresa askok ere hantxe dute kokalekua.



ALDEDI
MARKO-JARTZEAK


Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84



Gambrinus
garagardotegia

- Menua:
bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32



Hilbera
kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tel.: 943 79 22 70



ARRASATE
HOTELA

Biteri, 1
Tel.: 943 79 14 16
ARRASATE



LIRAIN

ESTETIKA-ZENTRUA
EMAKUME-GIMNASIOA

Teknika berria!



TERMOESTIMULAZIO INTEGRALA

Emaitza azkarragoak eta iraunkorragoak
Eskaera gehien dituzten estetika arazoei irtenbide
azkarragoa eta iraunkorragoa:

- Zelulitis gogor eta biguna
- Tinkotzailea
- Erditze-ostekoa
- Zirkulatorioa, drainatzailea eta lasaigarria
- Birmoldagarria, erreduktorea eta bizkorgarria.

HASIERAKO ESKAINTZA
24 € saio bakoitzeko.

TEKNIKA BERRIAK, GUZTIZ EDERTZEKO

KIRURGIA ESTETIKOA (MEDIKU ESTETIZISTA)

- Liposukzioak.
- Bularren handitze edo txikitzea.
- Laser bidezko depilazioak.
- Dietak / Mesoterapia.

KIROL ZERBITZUA

Talde mugatuak!

Zatoz lehenbailehen izena ematera.

- Aerobika
- Step
- Sasoian egoteko gimnasia
- Muskulazioa
- Sauna
- Makina aerobikoak



Etxeko konponketak

Aroztegia

Armairuak, hormako armairuak, atek, oholtzak, leihoak etab.



**AROSZEGIA
LAGUN**

Garagartza auzoa, 5-2.
(Bixiena Baseria) • ARRASATE
Tel.: 943 77 02 43
Mugikorra: 608 77 40 83
Markoalde, 5-7 • BERGARA
Tel.: 943 76 08 10

Igeltzaritza



Izcue Irurzun

Igeltzaritza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

Leihoak



ARGI PLASTIK

PVC, aluminio termiko
eta poliuretanozko
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola, 1- Pab.
Tel./ Faxes: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

Elektrizitatea

**ARANZABAL
KOOP. E.**

Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak

Zerkaosteta, 15
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Iturgintza

Aretxabaleta

Durana, 16 behe (Aretxabaleta)
Tel.: 943 79 17 53



ION LEIHOAK

PVC • Aluminioa RPT
Poliuretanoa • Bitarikoak

Ateak • Zoluak

Kanpantorpea, 2-behea • ARRASATE
Tel./Faxes: 943 79 11 35



RRASATE

Elektrizitatea

Instalakuntza eta muntatze elektrikoak
24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77

Gipuzkoa etor., 37 • Tel.: 943 79 65 93



Loramendi 7, 2 behe
Tel.: 943 77 08 88

**Iturgintza • Bainuak
Gasa • Berogailuak**

Giltzak



- Zerrailagintza • Giltzen kopiak • Zapata eta aterkin konponketa • Artazi, laban eta abarren salmenta eta zorrozketak • Larruzko gauzak
- Pantografo bidezko grabaketa

Eroski merkataritza zentroa, 1
Tel./Fax: 943 79 76 03

Margoak

APAIN

MARGO ETA APAINKETA

Matiena, 3-1
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea, 39 behe • Tel.: 943 77 01 85

Txorrota

Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17



10.000 KOLORETAKO MENUA

Ferrerias, 36 behe • Tel.: 943 79 12 87

Gida honetan azaldu nahi baduzu,
deitu 943 71 23 91 telefonora

Eraikuntzak

Berecibar

Santamaina, 34 • Tel.: 943 79 09 63